





OSALAN 2012KO JARDUERA MEMORIA



GAUZATUTAKO JARDUEREN DESKRIBAPENA



OSALAN
2013ko apirila





AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	5
1. SARRERA.....	7
2. 2012RAKO KUDEAKETA PLANAREN ESPARRUAN GAUZATUTAKO EKINTZAK	9
A.1.- KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA.....	9
A.2.- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEAN INPLIKATUTAKO AGENTEEN PARTE-HARTZEA ETA HAIEN ARTEKO LANKIDETZA	15
A.3 – ERAKUNDEEN KONPROMISOA ETA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA	17
A.4 – LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ALORREKO KONTROLA ETA AHOLKULARITZA, BATEZ ERE ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK AINTZAT HARTUTA.....	19
A.5 – LAN-BALDINTZAK HOBETZEA ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA KUDEAKETAN INTEGRATZEA.....	23
A.6 – LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA LEHEN SEKTOREAN	27
A.7.- BERARIAZKO PRESTAKUNTZA	31
A.8. – OSASUNAREN ZAINZA	35
A.9.- LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARAKO JARDUKETEN KALITATEA	39
A.10 – IKERKUNTZA	43
A.11 – INFORMAZIO-SISTEMAK.....	45
A.12 – PERTSONEN GARAPEN PERTSONAL ETA PROFESIONALA.....	49
A.13.- OSALANEN ERAKUNDE-JARDUERA	55
3. 2012KO KUDEAKETA PLANAREN GARAPENARI BURUZKO BALIOESPENA.....	59
ERANSKINA: EAE-KO ISTRIPUEI BURUZKO DATUAK.....	61



AURKEZPENA

OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen 2012ko Jarduera Memoriak laburbiltzen ditu erakunde autonomo honek Euskal Autonomia Erkidegoko laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako hainbat alorretan ekitaldian gauzatu dituen jarduerak.

Osalanen jarduera 2012rako diseinatutako Kudeaketa Planaren arabera izan da. Plan horren garapenean zenbait doitze egin dira, bai itxaropenak betetzeko itxurarik ez zuten jarduerak bideratzeko, bai prebentzioaren alorrean identifikatutako premia berriei erantzuteko.

Iaz bezala, Osalanen 2012ko jarduera bideratu duten oinarriek dokumentu horretan ezarritako balioak dituzte inspirazio-iturri. Aipagarriak dira, besteak beste, honako balio hauek:

- ✚ Laneko segurtasun eta osasunaren alorreko eragile garrantzitsuekiko lankidetzaren bultzatzea, bai eta gaian diharduten profesionalekin eta espezialistekin elkarlanean jardutea ere, ahaleginak batzeko, helburu partekatutako lortze aldera.
- ✚ Euskal Autonomia Erkidegoak laneko arriskuen prebentzioan dituen arazo zehatzetan eragitea, berariaz diseinatutako ekintzen bidez, honako printzipio hauek oinarri hartuta: kalitatea, eraginkortasuna, eta baliabide publikoei onura handiena ateratzea.
- ✚ Egoera-aldaketak identifikatzea eta Osalanen esku-hartzeen eragina zehaztea, etengabeko jarraipenaren eta gure ekintzen emaitzen ebaluazio zorrotzaren bidez, eta malguak izatea, lanaren antolaketa dinamiko baten bidez doikuntzak egiteko.

Osalanen 2012rako Kudeaketa Plana, batez ere, erakundeko langileen ahaleginari eta inplikazioari esker gauzatu da, bai eta gurekin lankidetzan aritu diren pertsona, erakunde eta entitateen laguntzari esker ere. Horiei guztiei eskerrak eman behar dizkiegu, benetan.

Izaskun Urien Azpitarte
OSALANeko zuzendari nagusia



1. SARRERA

Osalanen 2012ko jarduera, funtsean, ekitaldirako diseinatutako Kudeaketa Planaren araberrakoa izan da, unean uneko aldaketa batzuk eginda, jarduketaren garapena eta emaitzak nahiz egoera-aldaketak aintzat hartuta.

Kudeaketa Plan horrek jarraipena ematen zion 2011n hasitako strategiaren hedapenari. Horrenbestez, bere egiten zituen 2011-2014ko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategian adierazitako balio, helburu eta jarduera-ildo hauek:

- JI.1.- Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa
- JI.2.- Laneko segurtasun eta osasunean inplikaturako agenteen parte-hartzea eta haien arteko lankidetzaz
- JI.3.- Erakundearen konpromisoa eta lankidetzaz
- JI.4.- Ikuskapena, kontrola eta aholkularitza
- JI.5.- Laneko arriskuen prebentzioa, enpresak eta lan-baldintzak hobetzeko
- JI.6.- Laneko arriskuen prebentzioa kudeaketan integratzea, enpresaren bikaintasuna sustatzeko
- JI.7.- Berariazko prestakuntza
- JI.8.- Osasunaren zaintza
- JI.9.- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko jarduketaren kalitatea
- JI.10.- Jakintza sortzea
- JI.11.- Informazio-sistemak
- JI.12.- Pertsonen garapen pertsonal eta profesionala
- JI.13.- Osalanen erakunde-jarduera

13 ildo horietako bakoitzean helburu orokor batzuk ezartzen dira, zenbait xede zehatzetan banatzen direnak, eta xede horiek lortu behar dira, horretarako diseinatutako ekintzen garapenaren bidez. Xede horiek dira, hain zuzen, Osalanen jarduera bideratu dutenak, eta baliagarriak izan dira 2012rako Kudeaketa Plana osatu duten hainbat lan-esparrutan erakundearen berariazko helburuak ezartzeko.

2012an Osalanek jorratu dituen esparruak bat datoz, funtsean, jarduera-ildo estrategikoekin. Salbuespen bakarra da laneko arriskuen prebentzioa bereizita landu dela lehen sektorean, istripu-tasa kezkarriak eta prebentzioaren kudeaketarako zailtasunak baititu. Gainera, Osalanek erakundearen sortzeko legean honako gai hauei buruz esleitutako funtzioak bete ditu: lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak ikertzea, eta laneko, osasuneko eta industria-

segurtasuneko agintaritzek egindako eskaerei erantzutea, bai eta instantzia judizialek eta laneko osasunean eskumenak dituzten beste erakunde eta organo batzuek egindako eskaerei ere. Halaber, EAEn aritzen diren prebentzio-zerbitzuen gain osasuneko agintaritza gisa dituen eskumenak gauzatu ditu.

2012rako Kudeaketa Planaren testuinguruan gauzatutako ekintzak garatu dira, funtsean, adostutako eta dagozkien fitxetan gordetako diseinuaren arabera. Fitxa horietan definituta daude ekintza bakoitzaren helburua, irismena, zereginak, egutegia eta jarraipenerako mekanismoak.

Ekintza horien gauzate-maila lan-arlo bakoitzean, bai eta lortutako emaitzak ere, ondorengo kapituluetan jasota daude.



2. 2012RAKO KUDEAKETA PLANAREN ESPARRUAN GAUZATUTAKO EKINTZAK

Ondoren deskribatuko ditugu 2012rako Kudeaketa Planean eraturako hamahiru lan-eremuetan Osalanez gauzatutako ekintzak, eta 2011-2014ko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategiaren helburuetan izan dituzten ondorioen zenbatespena.

A.1.- KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Arlo horretan, *euskal gizartean prebentzioaren aldeko kultura sortzea eta sendotzea* oinarri duen strategiaren agindua betetzea izan dugu helburu. Osalanez aburuz, helburu hori garrantzi handikoa eta ezinbestekoa da laneko arriskuen prebentzioaren garrantziaz jabetutako masa soziala lortzeko, beste ekimen batzuk garatzeko eremu emankorra izan dadin.

Azken finean, helburua da euskal gizartea osatzen duten kolektiboek helaraztea haiengan interes eta eragin handiena izan dezaketen laneko segurtasun eta osasunaren alderdiak, zabalkunde handiko baliabideak erabiliz, ahalik eta hedapen handiena lortzeko. Horretarako ekimen nagusiak hauek izan dira:

- Laneko arriskuen prebentzioa masa-hedabideetan ikusaraztea (prentsa idatzia, irratia, telebista).

Osalan sarritan azaldu da urtean zehar hedabideetan.

- Prentsa idatzia: artikuluak argitaraldi handiko egunkarietan (DEIA, Noticias de Álava, Noticias de Gipuzkoa, el País eta El Correo).
- Irratia: zuzendariari eta teknikari batzuei egindako elkarrizketak, eta zuzeneko programen emanaldiak berariazko zenbait ekitalditan.
- Telebista: ORPren 2012ko Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Nazioarteko Biltzarraren estaldura handia, eta agerraldiak laneko arriskuen prebentzioari buruzko gaiak jorrotzen dituzten dibulgazio-programetan. Zuzendariari eta teknikari batzuei egindako elkarrizketak (ETB, Tele Donostia eta Tele 7).

- ORPren Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Nazioarteko X. Biltzarra.

Zabalkuntzaren alorreko ekintza garrantzitsu gisa gailentzen da Occupational Risk Prebention – ORPren Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Nazioarteko X. Biltzarra, Bilbon egin zena. Osalanez aktiboki parte hartu zuen, dibulgazioaren eta zientziaren alorreko zenbait ekintzen bidez. Izan ere, Osalanezko teknikari batzuek 15 tailer edo workshop antolatu zituzten, parte-hartzean oinarrituta. Tailer horietan hainbat gai jorrotu zituzten: osasuna zaintzeko protokoloak, krisialdi ekonomikoaren eragina lan-istripuen tasan, arrisku psikosozialen egoera EAEn, laneko arriskuen prebentzioa arrantzaren sektorean, laneko historia medikoaren ereduak, etab.

Gainera, Osalanez 3 Expert-Meeting antolatu zituen, bai laneko medikuntzaren, bai

emakumearen, bai laneko arriskuen prebentzioaren erronka berriei buruz, Emakunderekin eta Europako Agentziarekin lankidetzan. Ahozko 6 komunikazio eta 14 poster aurkeztu zituen, prebentzioaren zenbait arlori buruzkoak.

Biltzarrean 1.300 parte-hartzailetik gora bildu ziren (adituak eta laneko segurtasun eta osasunaren alorreko profesionalak), % 30 atzerritik etorriak. Hiru egunetan eztabaidan aritu ziren eta jardunbide egokiak azaldu zituzten, honako goiburua hau oinarri hartuta: Lana efizientziaz antolatzeko, prebentzioa kudeatu behar da.

- Enpresaburuak zein langileak helburu dituzten dibulgazio-ekintzak, laneko arriskuen prebentzioan bereziki inplikaturako kolektiboak diren aldetik.

- Laneko segurtasun eta osasunaren alorreko gaiei buruzko **enpresaburuaren topaketa-foroetan** parte hartu du Osalanek. Aipatzekoa da, batez ere, ADEGIk laneko arriskuen prebentzioaren alorrean egindako IV. Foroa. Topaketa horretan lau saio egin dira, honako gai hauei buruz: prestakuntza, laneko arriskuen prebentzioaren alorreko irtenbide sortzaileak, laneko arriskuen prebentzioa nazioartekotze-prozesuetan, eta industria-higienaren alorreko arriskuen kudeaketa.
- **Ikasgela mugikorra** jardunean aritu da, EAEko hiru lurraldeetako industrialdetan alde batetik bestera, laneko arriskuen prebentzioa lantokietara hurbilduz, eta azoka eta ekitaldietan agerraldiak eginez.

Ikasgela mugikorrek 2011ko azaroaren 1ean ekin zion jarduerari, eta emaitza positiboa izan duela esan daiteke. Parte-hartzaileei erreparaturik, 451 enpresak, 4 elkarteak, 2 prestakuntza-zentrok eta zenbait partikularrek parte hartu dute. Guztira 6.136 ikasle izan dira –haietatik 5.076 besteren konturako langileak– eta askotariko gaietan jaso dute prestakuntza: gehiegizko nekeak, harrapatzeak eta zapaltzeak, kolpeak eta ebakiak, erortzeak, norbera babesteko ekipamenduak, bulegoko arriskuak, kontaktu elektrikoak, agente toxikoak, buruko nekea eta laneko asegabatasuna, prebentzioa integratzea, lan-istripuak eta gaixotasun profesionalak, eta bide-segurtasuna.

- OSALANen eta herritarren arteko komunikazioa eta interakzioa erraztea.

Jakin badakigu Internet potentzial handiko baliabidea dela laneko arriskuen prebentzioan dibulgazioa, komunikazioa eta esperientziak trukatzeko bideratzen duen tresna den aldetik, eta askotariko kolektiboetako hainbat eta hainbat hartzailerengana iristeko ahalmena duela. Horregatik, Osalanek berebiziko ahalegina egin du, sarean duen presentzia eta jardura sendotzeko.

2011n Osalan web kudeatzaile batez hornitu zen, eta haren lanari esker Osalanen webgunea nabarmen hobetu da, eta horrez gain, gizarte-sareetan gehiago parte hartzea bideratu da. Honako hauek dira esparru horretan ezarritako berrikuntzak:

Hobekuntzak Osalanen webgunean:

- AENOR arauak doan kontsultatzeko aplikazio bat eskuratzeko lotura.
- Zuzeneko atzipena Osalanek Facebook eta Twitter gizarte-sareetan dituen kontuetara.
- Osalanek antolatzen dituen ekitaldi nabarmengarrien informazioa eskuratzeko lotura.



- «Albisteak» gunearen berrantolaketa.
- Edukiak eguneratzea, eta laneko segurtasun eta osasunarekin zerikusia duten loturen gehigarria.

Osalanen presentzia **gizarte-sareetan**:

- Gutxieneko baldintzak ezarri ondoren, Osalaneko langileentzako hitzaldian jakinarazi dira, guztien inplikazioa eskatzeko.
- Twiter gizarte-sareko jarduera:
 - o 627 Tweet argitaratu dira
 - o 586 jarraitzaile ditugu, eta 856ren jarraitzaile gara
- Facebook gizarte-sareko jarduera:
 - o 138 erabiltzailek «atsegin dute» Osalan
 - o 350 eduki argitaratu dira, eta 496 argazki hedatu dira 27 albumetan
- Youtube gizarte-sareko jarduera: IREKIA plataformatik berariazko kanal bat zabaldu dute Osalanentzat. Oraindik ez da hartu bideoen bat argitaratzeko erabakirik.

Osalanek Facebook eta Twitter gizarte-sareetan dituen kontuen bilakaeraren balioespen gisa, esan dezakegu Twitter kontua dela hazkunde handiena izan duena, eta jarraitzaileen kopuruak etengabe gora egiten duela. Facebook kontuari dagozkion zenbatekoak apalak dirudite, baina azpimarratu behar da datu horiek ez direla, bere hutsean, erabakigarriak. Gure Facebook kontuko trafikari buruzko txosten estatistikoek adierazten dute gure orrialdean argitaratu ohi ditugun edukien jarraitzaile leial asko ditugula.

Halaber, adierazi behar da Osalanek Facebook gizarte-sarean daukan kontua balio handikoa dela erakundearen webgunearen egungo antolaketan nekez txerta daitezkeen zerbitzuak emateko; esate baterako, ikonografiaren kasuan. Oro har, Osalanek Facebook eta Twitter gizarte-sareetan dituen kontuak eraginkorrak dira ekitaldien berri garaiz emateko; adibidez, Osalanek ematen dituen prestakuntza-jardunaldien berri emateko. Horrenbestez, hainbat aukera ematen dituzte: mezuak zuzenean bidaltzea, parte-hartzaileak aurkeztea, argazkiak argitaratzea, material osagarriak eskuratzeko loturak jartzea, kontsultak jasotzea, etab.

- ADI proiektua, Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioarekin eta MUTUALIArekin lankidetzan, Lanbide Heziketako ikasleen artean prebentzioaren kultura sustatzeko, senior boluntarioen jardueraren bidez.

Proiektu hori Lanbide Heziketako 30 ikastetxetara iritsi da, 2011n hasitako lanari jarraipena emanez, eta 1.000 ikasle baino gehiagok parte hartu dute. Osalanen zeregina izan da boluntarioen parte-hartzeetan erabiltzeko laguntza-materialak egitea. Halaber, boluntario horien ahalegina eskertu du Osalanek 2012ko urriaren 4an egindako aintzatespen-ekitaldiaren bidez.

Kontzientziazioaren eta sentsibilizazioaren alorreko berariazko helburu bat da **laneko arriskuen prebentzioan oinarritako prestakuntza** ematea hainbat ikaskuntza-mailatan, eta

hasierako prestakuntza hori geroago kolektibo bakoitzaren premien arabera osatu beharko da. Gai horri dagokionez, ekintza hauek gauzatu dira:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan egindako jarduerak, laneko arriskuen prebentzioa Lanbide Heziketan sartzeko.

Osalanen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko elkarlanak, aurreko plan estrategikoan (2007-2010) hasi eta 2011n jarraipena izan zuenak, aurrera egin du; horrenbestez, hainbat ekintza gauzatu dira Lanbide Heziketaren alorrean.

Hezkuntza Sailarekin bilera bat egin dugu, bidali genizkien materialak egiaztatzeko prozesuaz jarduteko. Une hauetan material hori guztia prest dago, euskarara itzuli eta Sailaren 3.0 webgunean esekitzeko, prestatzaileentzat lagungarri izan dadin.

- Laneko arriskuen prebentziorako unibertsitate-mailako prestakuntza: Laneko segurtasun eta osasunari buruzko II. Uda Ikastaroa, UPV/EHUko Uda Ikastaroetan.

2012ko irailaren 3an eta 4ean bigarren urtez jarraian egin da laneko segurtasun eta osasunari buruzko Osalanen ikastaroa, UPV/EHUko Uda Ikastaroen artean. Oraingo honetan, lanari lotutako minbizia eta lehen sektoreko laneko arriskuen prebentzioa izan dira ikastaroaren ardatz nagusiak.

2011n bezala, emaitza oso positiboa izan da: 110 ikaslek parte hartu zuten, gai desberdinetako bi jardunaldietan % 50ean banatuta.

- Laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako prestakuntza- eta dibulgazio-ekitaldietan parte hartzea.

Osalanek laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako hainbat ekintzetan parte hartu du, bai Osalanek sustatutako edo antolatutako jardueretan, bai beste erakunde, gizarte-eragile, laneko arriskuen prebentziorako espezializatutako erakunde eta elkarte batzuek antolatutako ekintzetan. Xehetasun gehiago eskuratu nahi izanez gero, kontsultatu 32. orrialdeko laukia.

Osalanek sustatutakoen artean honako hauek gailentzen dira:

- Teknikaren eta medikuntzaren alorreko jardunaldia (Osalanek antolatua, LSHINekin elkarlanean): Lanean amatasuna babestea. 2012ko urtarrilak 19. Donostia.
- Berriazko jardunaldia: Amiantoa EAEn. 2012ko otsailak 22. UPV/EHUko paraninfoko ekitaldi-aretoa. Bilbo.
- Eraikuntzako gidaliburu tekniko aurkezteko jardunaldi tekniko, LSHINekin lankidetzan, Mitxelena entzunaretoan. Maiatzak 9.
- Laneko segurtasun eta osasunari buruzko II. Uda Ikastaroa. Donostia. Miramar jauregia. 2012ko irailak 3 eta 4.
- Tunel eta zangetan lanean jarduteko segurtasun-gidak aurkezteko jardunaldi tekniko Bilboko Baroja aretoan.



- Bi jardunaldi tekniko: Prebentzio-baliabideen eskuliburuaren aurkezpena, Osalanek antolatua, Mutualiarekin lankidetzan. Donostian (Pakea klinika) eta Gasteizen (Europa jauregia).
- Amianto eta mesotelioma aztertzeko Osalanek finantzaturako ikerketa-proiektuaren emaitzak aurkezteko jardunaldia, Onkologikoarekin lankidetzan. Donostia. Onkologikoko ekitaldi-aretoa. 2012ko uztailak 5.

Beste erakunde batzuek antolatutako edo sustatutako jardueretan ere, Osalaneko teknikari batzuek parte hartu dute, azpimarratzekoak dira, besteak beste:

- *Guía de VST en pesca de bajura y artesanal* gidaliburua aurkezteko jardunaldia. Cadizko laneko arriskuen prebentziorako erakundea. 2012ko otsailak 15.
- Halaber, *Guía de VST en pesca de bajura y artesanal* gidaliburua aurkezteko jardunaldia antolatu zuen LSHINEk Madrilen. 2012ko martxoak 22.
- SESLAPen XIX. Biltzarra. Zenbait mahai-ingurutan parte hartzea. Bilbo. Alhondigako ekitaldi-aretoa. 2012ko apirilak 25-27.
- Laneko osasunari eta generoari buruzko jardunaldia, Emakundek antolatua. EAEko araudiari eta jarduteko arlo estrategikoei buruzko ponentzia, eta mahai-inguruaren koordinazioa (prebentzio-zerbitzuekin). 2012ko maiatzak 28. Bilbo.
- LSHINEk Madrilen antolatutako jardunaldi tekniko: Agente kimikoekiko esposizio profesionalaren muga-balioak Espainian, eta higiene-arriskuaren kontrola. 2012ko martxoak 15.
- APSALek antolatutako mahai-ingurua: Arriskuen prebentzioa eta laneko osasuna. Eusko Jaurilaritzaren Bilboko Ordezkaritzako ekitaldi-aretoa. Martxoak 22.
- Merkataritzako ontzidiko kapitainen Bizkaiko elkarteak antolatutako biltzarra: Itsas-istripu handiak eta laneko arriskuen prebentzioa portuetan eta arrantzan. Apirilak 25-27.
- ADI programaren emaitzen aurkezpena, Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioak antolatua. Tartangako LHI. Apirilak 27.
- LSHINEko Teknologia Berrien Zentro Nazionalak Madrilen antolatutako jardunaldi tekniko, lan-ekipoen gidaliburu tekniko aurkezteko. Apirilak 26. Jardunaldi hori Bilbon eta Galizian errepikatu zen.
- Arrisku psikosozialei buruzko Osalanen III. jardunaldiak, eta laneko jazarpenari buruzko nazioarteko jardunaldiak. BEC, Barakaldo (Bizkaia). 2012ko azaroak 5 eta 6.
- Laneko arriskuen prebentziorako Gipuzkoako IV. foroa, ADEGIk antolatua. Gipuzkoa. Azaroak 30.



A.2.- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEAN INPLIKATUTAKO AGENTEEN PARTE-HARTZEA ETA HAIEN ARTEKO LANKIDETZA

Estrategiako esparru horretan planteatutako helburu orokorra da laneko arriskuen prebentzioan inplikaturako agente guztien arteko lankidetzaren bermatzea, komunikazio-, lankidetzaren eta partaidetzaren mekanismo egonkorren bidez.

Osalaran ildo horretan lanean aritu da, gizarte-eragileen, administrazioaren eta laneko arriskuen prebentzioan espezializatutako erakundearen arteko elkarlana sustatzea helburu hartuta. Horretarako, honako ekintza hauek garatu ditu:

- Laneko arriskuen prebentzioan espezializatutako erakundeekiko lankidetzaren sendotzea, eta lantaldeei jarraipena ematea, gai espezifikoak jorratzeko.

2012an jardunean aritu dira 2011n prebentzio-zerbitzuekin (besterenak, propioak eta mankomunatuak) batera eratutako 5 lantalde. Lantalde horietan gai espezifiko hauek jorratu dira:

- Arrisku psikosozialak EAEn.
- 306/1999 Dekretua, prebentzio-zerbitzuen osasun-jardueraren arautzen duena, aldatzea.
- Laneko historia medikoa.
- Datuen multzo minimoa.
- Arrisku kimikoak ebaluatzeko metodoak.

Emaitzei erreparatuta, lantaldeen dinamika horri jarraipena eman nahi zaio, eta behar izanez gero, lantalde berriak sortu, beharren arabera. Halaber, lantalde horietan sortutako proposamenak garatu nahi dira.

- OSALANen Kontseilu Nagusiko batzorde delegatuen zeregina sendotzea 2011-2014ko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategiaren esparruko jardueren garapen eta jarraipenean.

2012an prestakuntzako batzorde delegatuak bi bilera egin ditu, eta gaixotasun profesionalen batzordeak, berriz, beste bi bilera. Bilera horietan dagozkien eskumenen alorreko gaiak jorratu dituzte. Osalaran informazioa eskuratu du (gauzatutako ekimenei buruzko datuak eta haien emaitzak) eta jarduerak garatzeko akordioak adostu dira.

- Lan Harremanen Kontseiluarekin lankidetzaren egindako proiektua, negozio kolektiboan laneko arriskuen prebentzioari ematen zaion tratamendua aztertzea.

Osalaran eta Lan Harremanen Kontseiluaren arteko lankidetzaren erakunde horrek egindako txosten batean gauzatu da. Txosten horrek jasotzen du, hain zuzen, 2011n sinatutako hitzarmen kolektiboetan laneko arriskuen prebentzioari ematen zaion tratamenduen analisia.

Txosten horrek adierazten du hutsuneak eta gabeziak daudela negoziazio kolektiboan, laneko segurtasun eta osasunari ekiteko moduari erreparatuta. Gainera, txosten hori abiapuntua da 2013an arlo horretan garatuko diren baterako ekimen berrien diseinurako.

- Gizarte-elkarrizketarako mahaia.

2012an Laneko Osasun Batzordeak hiru bilera egin ditu, hainbat gai aztertzeko.

Azpimarratzekoak dira, besteak beste, honako hauek:

- EAEn gertatutako istripu hilgarrien azterketa eta Laneko Ikuskatzaitzaren txostenak.
- Osalanek Laneko Ikuskatzaitzarekin batera egindako kanpainei buruzko informazioa; zehazki, silizeari buruzko kanpainari buruzko informazioa.
- Etxebizitzak birgaitzeko obretako segurtasunari buruzko gidaliburu teknikoa, eta material horren zabalkundea.
- Laneko Ikuskatzaitzak besteren prebentzio-zerbitzuei jarritako zehapenei buruzko informazioa.
- Laneko Ikuskatzaitzaren kanpainei buruzko informazioa.



A.3 – ERAKUNDEEN KONPROMISOA ETA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA

Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategiaren jarduera-ildo horren xedea da, alde batetik, administrazio eta erakunde publikoek laneko arriskuen prebentzioarekiko konpromisoa hartzea, eta bestetik, haien arteko lankidetzak sistematiko eta egonkorra sustatzea. Helburu horiek lortzeko, OSALANek ekintza batzuk gauzatu ditu. Dena dela, esparru horretan helburuen lorpena partziala izan da. Horren arrazoia da erakunde-egitura oso konplexua dela; izan ere, laneko segurtasun eta osasunaren alorreko eskumenak banatuta daude estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko administrazioen artean, eta batzuetan haien interes eta lehentasunak ez datoz bat.

Horrenbestez, administrazio eta erakunde publikoen prebentzio-zerbitzuekiko lankidetzak ez da gauzatu, eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategiaren garapenean inplikaturik dauden Eusko Jaurlaritzako sailen arteko lankidetzak ere ez da sistematizatu. Beraz, jarduera zehatzak gauzatzeko, unean uneko akordioak baino ez dira lortu.

Hala eta guztiz, aurrerabideak egin dira honako gai hauetan:

- EAEko udalen kudeaketan laneko arriskuen prebentzioa integratzea, eta erakunde bakoitzaren bitartekoekin, prebentzio-zerbitzu amankomunatuena bidez, zeregin hori beren gain hartzea sustatzea.

Udalen egungo egoeraren ebaluazioa egin da, 2011z geroztik abian dagoen bisitaldien kanpainaz baliatuta, eta EAEko udaletan prebentzio-zerbitzu amankomunatuak ezartzeko azterketa bat egin da. Azterlan horrekin batera, prebentzio-zerbitzu amankomunatuena ereduaren aintzat hartu beharreko puntuak azaltzen dituen dokumentu bat prestatu da, bai eta ezartzeko protokoloa ere.

Azterlan hori EUDELi aurkeztuko zaio, ezinbesteko lankidea baita Euskadiko udaletan eredu hori hedatzeko eta ezartzeko prozesuan.

- Lege-garapena: 306/1999 Dekretua, EAEn prebentzio-zerbitzuen osasun-alorreko jarduerak arautzen dituen, aldatzeko proposamena.

306/1999 Dekretua, EAEn prebentzio-zerbitzuen osasun-alorreko jarduerak arautzen dituen, aldatzearen 2011n hasitako lanari jarraipena eman zaio (Ekimena sortu zen, hain zuzen, 843/2011 Errege Dekretua, prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduerak garatzeko baliabideen antolaketarako oinarritzeko irizpideak ezartzen dituen, argitaratu ostean).

2012an dekretu aldatuaren zirriborro bat burutu da, prebentzio-zerbitzuekin eta zientzia-elkarteekin lankidetzan. Osasun eta Kontsumo Sailak ikuskatu eta aldatu du dokumentu hori, eta sailerako azterlanen eta araubide juridikoen zuzendaritzetara bidali da, izapidetu ostean Gobernu Kontseiluak onetsi dezan.

- Obra publikoan laneko arriskuen prebentzioa integratzea.

Osalanek aktiboki parte hartu du EAEko administrazio publikoek sustatutako azpiegitura handien obretan laneko arriskuen prebentziorako jarraipena egiteko lurralde-batzordeetan. Horrenbestez, 5 bilera egin dira Gipuzkoan eta 3 Bizkaian, obra publiko handietako prebentzio-jarduerak definitzeko, batez ere metroa eta abiadura handiko tren kontuan hartuta. Bilera horietan honako erakunde hauek hartu dute parte: Osalan, Eusko Jaurlaritzako organo eskudunak, foru-aldundiak, ADIF eta beste zenbait erakunde.

- Aldian behingo bilerak Laneko Ikuskatzaitzarekin eta Lan Agintaritzarekin, jarduerak koordinatzeko.

Osalanek komunikazio arin eta egokia izan du Lan Agintaritzarekin eta Laneko Ikuskatzaitzarekin, laneko arriskuen prebentziorako jardueretan zuzeneko inplikazioa duten Eusko Jaurlaritzako organoak diren aldetik. Komunikazio horren ildotik garatu dira enpresak bisitatzeko baterako kanpaina batzuk (adibidez, galdategiak bisitatzeko ekimena).

Koordinazio horri eutsi behar zaio 2013an, eta sendotu egin behar da.

- Laneko segurtasun eta osasunean eragina duten Europako programa eta proiektuetan parte hartzea.

Osalan SAFERA proiektuan parte hartzen ari da (Europako industria-segurtasunaren alorreko ikerkuntzaren koordinazioa hazkunde iraunkor eta adimentsurako). Industria-segurtasunerako proiektua da, baina laneko segurtasuna ere barne hartzen du.

Une honetan, proiektuaren jarduera-eremuak, helburuak eta parte-hartzaileen zereginak definitzeko prozesuan gaude.

Laburpen gisa, adierazi behar da Osalanek erakunde eta administrazio publikoekin gauzatutako elkarlana argi eta garbi ageri dela baterako jardueren kopuru handiari erreparatuz gero. Aipatzekoak dira, besteak beste, LSHINekiko lankidetzak (eraikuntzako gidaliburu teknikoak argitaratzea eta material hori aurkezteko jardunaldiak), beste autonomia-erkidego batzuetako laneko segurtasun eta osasun institutuekiko lankidetzak (CANO proiektua, arrantzaren sektorean), eta Osalanen parte-hartzea erakunde horiek eta beste batzuek antolatutako prestakuntza- eta dibulgazio-ekitaldietan.

Berriaz aipatu behar da Osalanen, Osasun eta Kontsumo Sailaren eta Osakidetzaren arteko lankidetzak, 2012an sendotu egin dena. Lankidetzak hori funtsezkoa da irismen handiko ekimenak garatzeko; esate baterako: gaixotasun profesionalen susmoak jakinarazteko sistemaren ezarpena, laneko historia medikoaren ereduak, lanek eragindako minbiziaren zaintza epidemiologikoa, eta amiantoaren balizko eraginpean egondako pertsonen langile-bizitzaren osteko zaintza.

Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiarekiko lankidetzak ez da oraingoz arrakastatsua izan, Osalanek gaixotasun profesionalen datuak eskuratzeko aukera izateari begira, eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekiko lankidetzak ere ez da emankorra izan, gaixotasun profesionalen susmoak jakinarazteko sistemari dagokionez. Jarduera horiek 2013an bideratu beharko dira.



A.4 – LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ALORREKO KONTROLA ETA AHOLKULARITZA, BATEZ ERE ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK AINTZAT HARTUTA

Jarduera-ildo horrek EAEko enpresak ditu helburu; batez ere, enpresa txiki eta ertainak. Bi eginkizun hauetan oinarritzen da: alde batetik, enpresa horiek laneko arriskuen prebentziorako araudia betetzen dutela egiaztatzea, eta bestetik, enpresa horiei aholkularitza eta laguntza ematea, araudia aplikatzeari eta prebentzio-jarduera hobetzeari begira.

OSALANek **kontrol-jarduera** hauek gauzatu ditu arlo horretan:

- Amiantoa daukaten materialak kentzeko lan-planen kontrola.

Osalanen jarduera hori Lan Agintaritzaren errekerimenduen mendean dago, eta haren adar tekniko gisa jarduten du. 2012an:

- 252 lanerako plan jaso dira, eta haiei buruzko 236 txosten egin ditu Osalanek. Horren ondorioz, 220 plan onetsi dira, 16 plani ezezkoa eman zaie, 11 plan erabakitzeko daude, eta 5 planen sustatzaileek atzera egin dute.
- 210 landa-bisita egin dira amiantoa kentzeko lanetan ari ziren tokietara, lan-planak betetzen direla egiaztatzeko.

- Prebentzio-zerbitzuen osasun-egiaztatzea eta -baimentzea eskuratzeko baldintzen kontrola.

Osalanen jarduera horrek Lan Agintaritzaren errekerimenduari erantzuten dio, prebentzio-zerbitzuen egiaztapenerako baldintzen kontrolari dagokionez. Aitzitik, osasunaren alorrean, Osalanen Lan Osasun Unitateak prebentzio-zerbitzuen gaineko eskumena du, Osasun Agintaritza gisa.

- Lehenengo kasuari dagokionez, Osalanen jarduna gauzatu da Lan Zuzendaritzarekin elkarlanean, prebentzio-zerbitzu mankomunatuaren egiaztapen-irizpideak ezartzeko. Irizpide horiek ezarri eta jakinarazi ostean, prebentzio-zerbitzu mankomunatuaren gain jarduteko eredu bat diseinatzen ari da Osalan, horrelako prebentzio-antolaketa daukaten enpresetatik jasotako informazioa oinarri hartuta.
- Prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduerari dagokionez, 2012rako jomuga zen EAEn osasun-jarduerak egiteko baimendutako prebentzio-zerbitzuen eta baimen horien baldintzen erregistro bat egin eta haren berri ematea.

Erregistroa eta kudeatzeko prozedurak diseinatu ostean, helburua 2013ko martxoan gauzatuko da, prebentzio-zerbitzuen osasun-zerbitzuen erregistroa kudeatzeko aplikazio informazioa abian jarrita. Aplikazio hori Osalanen sistemen planaren barruan garatu da, eta une honetan probatzeko fasean dago.

Aholkularitza-jarduera hizpide hartuta, Osalanen asmoa da enpresek eta haien prebentzio-antolaketek laneko segurtasun eta osasunari buruzko araudia betetzeko dauzkaten arazo nagusien berri izatea, hartara haien prebentzio-jarduera hobetzen laguntzeko.

Horretarako, ohikoa denez, baliabide nagusiak dira EAEko hiru lurraldeetako hainbat sektore eta jarduera-adarretako erakunde eta enpresetara egiten diren bisitaldien kanpainak, lan-baldintzak eta laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa aztertzeko, hutsuneak identifikatu eta neurriak proposatze aldera. 2012an kanpaina hauek garatu ditugu:

- EAEko udaletan laneko arriskuen prebentzioa sustatzea.

Burutu da jada 2010ean hasi eta 2011n garatutako kanpaina, eta lortu da EAEko 251 udaletan jarduteko helburua: Arabako 51 udaletan, Bizkaiko 112 udaletan, eta Gipuzkoako 88 udaletan, hain zuzen.

2012an, berrikusteko zeuden udalei bigarren bisitaldia egin zaie, eta emaitzak aztertu dira.

- Galdategiak: silikosi-alertagatik egindako kanpainaren 2. fasea.

2010ean hasitako eta 2011n garatutako kanpainari jarraipena eman zaio, silikosia detektatutako EAEko galdategiak bisitatzea helburu hartuta.

2. fase horretan Laneko Ikuskatzaitzarekin batera egin dira bisitak, organo horrek eskatuta. Guztira 19 bisita egin dira Gipuzkoan. Bizkaiari eta Arabari dagokienez, Laneko Ikuskatzaitzak ez dio Osalani eskatu lurralde horietan bisitak egiterik.

- Eraikuntza-lanak.

Osalanek urtero egiten duen kanpaina da, eraikuntza-sektoreko enpresei lan-baldintzak hobetzen eta laneko arriskuen prebentzioa kudeatzen laguntzeko. Horretarako, lantokia irekitzeko komunikazioa helarazten duten obra guztiak bisitatzen dira, bai eta jarduera horietan ezagutzen diren obrak ere, hasierako zenbatespena 2.500 bisita egitea delarik.

2012an egindako kanpainaren datuak hauek dira:

- 4.944 bisita EAEn (2011n baino %55 gehiago), lurraldeen arabera honela banatuta: 1.359 Araban, 2.385 Bizkaian eta 1.200 Gipuzkoan.
- 5.718 bisita obren barruko azpikontratetara: 1.495 Araban, 3.158 Bizkaian eta 1.065 Gipuzkoan.

Eraikuntzan jardun behar du Osalanek, etorkizunean ere, eta urtero berrikusi behar ditu kanpainaren helburuak, lortzen diren emaitzen arabera.



- **Industrialdeak.**

Kanpaina 2010ean hasi zen, teknikari gaituekin, eta 2011n Bizkaian jarraitu zuen helburu berarekin: enpresek laneko segurtasun eta osasunaren alorreko legedia betetzeko dauzkaten arazo ohikoenen berri izatea, eta enpresa horiei aholkularitza ematea lan-baldintzen alorrean eta laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketan.

2012an EAEko beste bi lurraldeetara hedatu da jarduera, eta 4 industrialde hauetan aritu da Osalan: IBAITARTE (Elgoibar), SUBILLABIDE (Langraiz), EL ÁRBOL (Santurtzi) eta IBARZAHARRA (Trapaga).

93 bisitaldi egin dira guztira: 41 Araban, 41 Bizkaian eta 11 Gipuzkoan. Bisitaldi horiek oinarri hartuta, azken txosten bat egin da, jarduteko proposamen eta guzti.

- **Komunikazio-antenen instalazioen sektorea.**

2012ko maiatzean hasitako kanpaina da, eta Bizkaiko lurralde historikoan garatu da.

Hasiera zaila izan du; izan ere, antenen sektoreko elkarteekin egindako bileretan hauteman zen instalatzaileen artean aurkako joera zegoela, lan-ekipamenduan ondorioak izango zituela aurreikusita.

Komunitate eta etxe batzuetan ez daukate sarbide segururik, eta hura egokitzeak kostu handia dakar, eta horrek instalatzaileentzako kalteak eragin ditzake. Horrenbestez, urrian ekin zitzaion bisitak egiteari, eta honako hau da emaitza:

- Enpresen hasierako kopurua: 239.
- Egindako bisiten kopurua: 105 (%44).
- Baliogabeko bisiten kopurua (itxita, kontaktatu ezin direnak, beste batzuk): 83 (%35).
- Bisitatzeke geratu diren enpresak: 51 (%21).

Emaitzen txostena eta informazio-liburuxka prestaketa-fasean daude, eta 2013an hedatuko dira.



A.5 – LAN-BALDINTZAK HOBETZEA ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA KUDEAKETAN INTEGRATZEA

Jarduera-eremu honen helburuak dira, alde batetik, lan-baldintzen hobekuntza sustatzea, eta bestetik, laneko arriskuen prebentzioa enpresen kudeaketan benetan integratzea, jarduera guztietan prebentzioa aintzat hartuta, eta prozesu horretan maila hierarkiko guztien inplikazioa lortzea.

Lan-baldintzei dagokienez, 2011n hasitako jarduerari jarraipena eman die Osalanek, lan-baldintzen hobekuntzan eragin handiena duten faktoreak berariaz aintzat hartuta (makinak eta lanerako ekipoak, agente kimikoak, eta istripu gehien eragiten dituzten jarduerak), eta prebentzio-tratamenduan hutsuneak dituzten kolektiboak lagunduz.

Laneko arriskuen prebentzioa enpresen kudeaketan integratzeari dagokionez, garrantzi handiko aurrerabiderik ez da egin. Horren arrazoia da gai konplexua dela, ongi bideratutako ekintzen premia duena, ahaleginei etekina ateratzeko. Horren haritik, Osalaneko teknikariek tresna egokien prestaketan dihardute, haien aplikazioak prebentzioaren kudeaketaren integrazioan ondorioak izango dituela eta ondorio horiek neurgarriak eta ebaluagarriak izango direla bermatzeko. Jarduera hori 2013an jarraitzea aurreikusten da.

Arlo horretan honako ekintza hauek gauzatu dira:

- Makinen eta lan-ekipoen berritzea sustatzea, ekipo zaharren ordez araudia betetzen duten beste modernoago batzuk ezartzea sustatuz.
 - Oraingoan ere enpresentzako diru-laguntzen programa garatu da, SPRIrekin lankidetzan, makina zaharren ordez ekipo berriak jartzeko, eta hauek izan dira emaitzak:
 - 67 proiekturi eman zaie diru-laguntza, 75 makina ordezkatzeko.
 - 17 proiekturi ezezkoa eman zaie.
 - Guztira 882.842,64 euroko diru-laguntzak eman dira (2011n baino %40 gutxiago) SPRIk hornitutako 874.504,00 eroko aurrekontutik.

Lan-ekipoen erabilerari lotutako arriskuen prebentziorako programaren onurak egiaztatu dira, eta SPRIk aurreikusi du 2013an berriro programa hori garatzea.

Halaber, lan-ekipoak erosteko irizpide balioudunak prestatzeko 2011n hasitako lanari jarraipena eman zaio, gero enpresetan hedatzeko asmoz. Irizpide horiek ezarri ondoren, dokumentu batean jaso dira, eta 2013an argitaratu eta hedatuko da.

- Errepideko joan-etorrietan gertatzen diren lan-istripuen prebentzioa.
 - Errepideko joan-etorrietan gertatzen diren lan-istripuen arazoa aztertu da, bai *in itinere* bai misioko istripuetan, 2011n jorratzen hasitako gaian aurrera eginez.

Arlo horretan, estatu-mailako lantalde batean parte hartzen du Osalanek. LSHIN da

lantaldearen buru, eta gizarte-eragileen, Administrazio zentralaren (Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta Gizarte Segurantzza) eta autonomia-erkidego batzuen ordezkariak parte hartzen dute. Oraingoz, autonomia-erkidegoei informazioa eskatu zaie, arazo horri buruz egindakoaren berri eman dezaten.

- Aldi berean, Osalanek eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak zenbait bilera egin dituzte, gauza daitekeen lankidetzan diseinatzen. Lankidetzan horren ildotik, baliteke epe laburrean Osalanek errepidean gidatzeko teknikei buruzko ikastaro bat ematea, enpresetako gidarientzat.

Arlo hori jorratzen jarraitu beharko da 2013an; izan ere, lan-istripu guztien portzentaje handi bat errepideko lan-istripuak dira. Gainera, bestelako lan-istripuetan ikusten den joera beherakorra ez da ageri errepideko lan-istripuen kasuan.

- EAEko enpresetan substantzia kimikoei buruzko Europako erregelamenduaren (REACH) ezarpena sustatzea.

Osalan lankidetzan aritu da substantzia kimikoei buruzko Europako erregelamenduaren (REACH) inguruan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako sailekin, aurreko ekitaldiko lanari jarraipena emanez. Honako ekintza hauek gauzatu dira:

- Eratu den REACH mahaiaren bileretan parte hartu du Osalanek.
- FORCE2 programako REACH ekintzan parte hartu du: enpresak bisitatu ditu, Osasun Publikoko Zuzendaritzarekin batera; hutsuneak identifikatu eta dagozkion txostenak eta/edo aktak bidali ditu, zuzentzeko eskatuz.

Arlo horretan, osasunaren eta ingurumenaren alorreko eskumenak dituzten sailek lideratu behar dituzte REACHen ezarpena sendotzeko ekimenak.

- Laneko arriskuen prebentzioa, genero-ikuspegia aintzat hartuta.

2011n egindako jarduerak, eta batez ere *La perspectiva de género en la prevención de riesgos laborales. Oportunidades de actuación de Osalan* txostena, Universitat Politècnica de Catalunya CERPIE egina, abiapuntutzat hartu ditu Osalanek, eta zalantzarik gabeko apustua egin du, genero-ikuspegia aintzat hartzen duen laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko jarduera-ildo bat garatzeko, emakumeen laneko segurtasun eta osasunaren arazoa agerian jar dadin.

Horretarako, hainbat ekintza garatu dira zenbait jarduera-ildotan. Hona hemen aipagarrienak:

- «Generoa» kontuan hartu da, ikerketa-proiektuentzako diru-laguntzak emateko balioztapen-irizpide gisa, eta bi proposamen hauek finantzatu dira:
 - Enpresa txiki eta ertainetan arrisku psikosozialen eragina genero-ikuspegitik neurtzeko gidaliburua, Murgibe, SL berdintasuneko kontsultoretza-enpresak sustatua.



- Euskal Herriko Unibertsitateko generoagatiko jazarpen moralaren fenomenoaren detekzioa eta haren dimentsioen azterketa, UPV/EHUK sustatua.
- Dibulgazio-, kontzientziazio- eta sentsibilizazio-ekintza hauek sustatu dira:
 - Emakumeei eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko Expert-Meeting bat ORPren Biltzarrean, Emakunderekin eta Europako Agentziarekin lankidetzan.
 - Laneko osasunari eta generoari buruz Emakundek Bilbon antolatutako jardunaldian parte hartzea.
 - AENOR, UPC eta Fundación Preven erakundeek Bartzelonan antolatutako «Mujer y Trabajo» jardunaldi teknikoan parte hartzea.
 - Prentsan artikuluak argitaratzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IX. legealdiko Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko programaren garapenean parte hartzen jarraitu du Osalanek.
- Lantalde egonkor bat osatu da lan-ildo hori garatzeko eta egin daitezkeen proiektuak aztertzeko.

Ondorengo urteetan jorratu beharreko arloa da, laneko segurtasun eta osasunaren esparruko Europako estrategia berrian hautematen diren jarraibideen ildotik. Estrategia berri horrek ordezkatu du orain arte indarrean egon dena, 2012an amaitzen baitzen iraunaldia.



A.6 – LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA LEHEN SEKTOREAN

Osalanen 2012rako Kudeaketa Planean adierazitakoaren arabera, lehen sektorea berriro ere lehentasunezkoa zela jotzen zen, istripu-tasen datuak eta laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko zailtasun bereziak aintzat hartuta.

2011n ere Osalanek ahalegin handia egin zuen sektore horretan, eta 2012an ahalegin hori sendotu egin da, askotariko ekimenen garapenaren bidez. Hona hemen emaitzak:

- Laneko arriskuen prebentziorako planak arrantza-sektorean (ITSASPREBEN), bai eta nekazaritzan eta basogintzan ere (NEKAPREBEN), Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin lankidetzan, sektore horietako lan-baldintzak aztertzeke eta hobetzeko.

Osalanek laneko arriskuen prebentziorako Itsaspreben eta Nekapreben sektore-planen garapenean parte hartzen jarraitu du; alde batetik, laguntza teknikoa emanez, haiek eskatutakoan, eta bestetik, idazkaritza tekniko gisa etengabeko laguntza emanez.

Plan horien esparruan gauzatutako jardueraren laburpen gisa, Osalanek txosten bat egin du Eusko Legebiltzarreko Lan Batzordearentzat. Txosten horretan aipatzen dira gauzatutako ekimen garrantzitsuenak, bai eta ekimen horien emaitzak ere.

- ITSASPREBEN

Prestakuntza- eta zabalkuntza-jarduerak egin dira, besteak beste: Ikasgela mugikorarekin Bermeoko ARRRAIN AZOKAra joatea, ORPren Biltzarrean tailer propio baten bidez parte hartzea, TELEDONOSTIrako berariazko programa bat grabatzea, maniobra eta lan seguruen gidaliburuak Bermeon aurkeztea, eta Pasaiaiko Itsas Arrantza Eskola bisitatzea.

Ekintza tekniko gisa, norbera babesteko ekipamenduen gidaliburua berrikusten ari da Osalan, eta EAEko portuetako laneko arriskuen prebentzioaren egoeraren analisiaren kontrastean parte hartu du.

- NEKAPREBEN

Errematatzaileen kudeaketarako ereduaren kontrastean parte hartu du Osalanek, eta aurreikusitako kudeaketa-ereduen kontrasterako egutegia egiten ari da.

Euskadiko Nekazari-elikagaien Kooperatiben Federazioarekin bilera bat egin da.

Osalanek etorkizunean ere ITSASPREBEN eta NEKAPREBEN planetan parte hartuko du, indarrean dauden bitartean.

- Kantauriko lau erkidegoetako laneko segurtasun eta osasunerako erakundeen artean lankidetzaproiektua garatzea, arrantza-sektorerako laneko arriskuen prebentziorako baterako ekintzak gauzatzeko.

Kantauriko autonomia-erkidegoen artean 2011n hasitako lankidetzari jarraipena eman zaio, arrantza-sektorerako proiektuen gauzatzeari dagokionez.

- Dibulgazio-ekintzak egin dira, eta haien artean baxurako arrantzaren sektorean osasuna zaintzeko gidaliburuaren lehenengo zatia, 2011n prestatua, aurkeztu da.
- Baxurako arrantzaren sektorean osasuna zaintzeko gidaliburuaren bigarren zatia idatzi da, portuko jarduera lagungarriak eta itsaski-bilketa ardatz hartuta. Dokumentu horren xedea da zeregin horietan diharduten langileen osasunaren berariazko zaintza bideratzeko tresna izatea.

2013an gidaliburuaren 3. zatia egingo dela aurreikusi da, alturako eta altura handiko arrantza aztergai hartuta.

- Lehen sektoreko enpresak bisitzatzeko kanpainak, lan-baldintzak eta prebentzioaren kudeaketa hobetzea helburu hartuta.

Osalanek kanpaina hauek garatu ditu lehen sektorean:

- EAEn baxurako arrantzan diharduten ontzi eta armadoreak bisitzatzeko kanpaina.

2011n hasitako kanpainari jarraipena eman zaio, baina helburuak eta jarduteko prozedura berriro diseinatu dira.

40 ontzi aukeratu ziren, eta haietatik 17 bisitatu dira. Beste hutsune batzuk detektatzeaz gain, ikusi da langileen osasunaren zaintzaren alorrean ez dagoela inolako hitzarmenik.

Kanpainari jarraipena emango zaio 2013an, prozesua amaitu arte.

- Arabako nekazaritzako sasoiko lanaren urteko kanpaina, 2008-2012ko sasoiko lanari arreta emateko II. plan integrala, EAEko erakundeen arteko mahaia egina, testuinguru gisa hartuta.

Arabako patataren kanpainetan eta mahats-bilketetan parte hartzen duten sasoiko langileen eta enpresen artean laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko kanpaina gauzatu da 2012an ere.

Alderdi orokorrean buruzko aholkularitza teknikoa eman zaie enpresei, langileei eta erakunde publikoei. Informazioa eman zaie, eta gertatutako lan-istripuei eta gaixotasun profesionalei buruzkoa datuak bildu eta aztertu dira.

Kanpaina urrian gauzatu da, eta 10 udal, 4 osasun-zentro, 7 upategi-kooperatiba eta 6 instalazio lagungarri bisitatu ditu Osalanek. Berariazko txosten bat prestatzen ari da, lortutako emaitzak biltzeko, eta 2013an hedatuko da.

- Mahastizaintzako eta ardogintzako enpresak bisitzatzeko kanpaina.

Kanpaina diseinatu eta lanerako prozedura prestatu ondoren, bisitak egiteari ekin zaio.

Ardoa eta txakolina egiten duten 60 enpresek osatutako lagina aukeratu da, eta 60 bisitaldiak egin dira.

Kanpainari jarraipena emango zaio 2013an, amaitu arte.



- Basogintzan diharduten enpresak bisitatzeko kanpaina, Laneko Ikuskatzaitzarekin lankidetzan.

Osalanek eta Laneko Ikuskatzaitzak lankidetzan garatutako jarduera da, basogintzan diharduten enpresak –batez ere, errematatzaileak– ardatz hartuta.

Hautatutako 60 enpresetatik 38 bisitatu dira, eta 2013an kanpaina jarraitzea aurreikusi da, bisita guztiak egin arte.

Sektorean garatutako kanpainak ondorioen memoria edo txosten batean bildu dira, eta dokumentu hori baliagarria izango da 2013rako Kudeaketa Planean ekintza berriak diseinatzeko.

Laburpen gisa, adieraz daiteke azpisektore guztietan gabeziak aurkitu direla, bai laneko arriskuen prebentzioan, bai lan-baldintzetan. Bereziki aipagarriak dira honako xehetasun hauek:

- Arrantzan segurtasun-arazoak daude oraindik ere, batez ere ontzietarako eta upategietarako sarbideetan, lan-ekipoen egokitasunean, norbera babesteko ekipamenduen erabilera eta kontserbazioan, eta osasuna zaintzeko hitzarmenetan.
- Ardoaren eta txakolinaren sektorean aipatzekoak dira traktoreak ez iraultzeko arkuei lotutako segurtasun-arazoak, lan-ekipoen egokitasun eza, eta produktu fitosanitarioak prestatzean, erabiltzean eta biltegiratzean gertatzen diren gabeziak.
- Basogintzan gabeziak daude seinaletan, segurtasun-distantzietan, autobabeserako zein suteen aurkako planetan, eta norbera babesteko ekipamenduen erabilera egokian.

Egindako jardueren emaitzak oso positiboak dira, helburuak betetzeari erreparatuta, eta hurrengo ekitaldietan ere sektore horretan jardutera bultzatzen dute.



A.7.- BERARIAZKO PRESTAKUNTZA

Arlo horretako helburu orokorra zen enpresetan laneko arriskuen prebentzioa eraginkortasunez gauzatzeko ezinbesteko prestakuntza ematea, laneko segurtasun eta osasunaren zuzeneko eragileak gaitzea, eta arrisku jakin batzuei aurre egiteko prestakuntza bideratzea.

Prestakuntzak langileen segurtasuna eta osasuna hobetzeko funtsezko oinarri gisa duen garrantziaren jakitun da Osalan, eta zenbait arlotan dihardu. Enpresetako laneko arriskuen prebentziorako eragile nagusien prestakuntza sustatzen da, bereziki prebentzio-delegatuena, baina osasun-esparruan eta laneko arriskuen prebentzioan espezializatutako erakundetan diharduten profesionalen ezaupideak eta gaitasunak ere areagotu nahi dira. Horretarako, ekintza hauek gauzatu dira:

- OSALANen online campusa (*prevenfórmate*) sendotzea, premian dauden kolektiboetako prestakuntza-edukiak eta/edo ikastaroak helarazteko plataforma gisa.

Online campusak 2011rako Kudeaketa Planaren esparruan ekin zion jarduerari, interes handia sortuz. Interes horri eutsi zaio, eta eskainitako ikastaro bakoitzean argi ageri da, plaza guztiak berehala betetzen baitira.

Orain arteko jardunari erreparatuta, lau ikastaro egin dira: ikastaro bat 2011n eta 3 ikastaro 2012an. Azken hiru ikastaro horien gaiak eta emaitzak hauek dira:

- Laneko arriskuen prebentzioko auditorien oinarritzko ikastaroa (300 ikasle).
- Lanaren Nazioarteko Erakundeak laneko arriskuaren prebentziorako emandako jarraibideak (1.300 ikasle).
- Kudeaketa integratuaren oinarriak laneko arriskuen prebentzioan (300 ikasle).

- • Prebentzioko ordezkarien prestakuntza eta ikasgela iraunkorra.

- Osalanen EAEko enpresetako prebentzio-delegatuentzako prestakuntza sustatzen jarraitu du. Jarduera horretan zenbait eragilek parte hartzen dute: sindikatuak eta zentro homologatuak, prestakuntza-hornitzaile gisa, Hobetuz (aurreko urteetan) eta Lanbide (azken urtean).

Osalanen zeregina da ikastaroetan emateko edukiak prestatzea. Horretarako, eskuliburuak eguneratu eta maketatzen ditu, gero argitaratzeko, egoki izanez gero, webgunearen bidez.

Prebentzio-delegatuei 2012an eman zaien prestakuntza 1. taulan jasota dago:

1. TAULA: PREBENTZIO-DELEGATUENTZAKO PRESTAKUNTZA (2012)

Gaia:	Ikastaro-kop.	Ikasle-kop.
Araudia	56	919
Prest. teknikoa	46	823

- Halaber, 2012an ere eraikuntza-sektoreko langileei prestakuntza eskaini zaie, ikasgela iraunkorraren bidez. Ikasgela mugikorra Gipuzkoan ibili da, lurralde horretan ez baitago eraikuntzaren alorreko lan-fundaziorik.

2012an 43 ikastaro eman dira eta 649 ikaslek hartu dute parte (Adegik eman ditu ikastaroak).

- Gai espezifikoari buruzko jardunaldi teknikoak, laneko arriskuen prebentzioari buruzko ezaupideak bultzatzeko.

Laneko osasun eta segurtasunari lotutako gai espezifikoari buruzko 12 prestakuntza-ekintza antolatu dira (ikus 2. taula). Eraitzei erreparatuta, azpimarratzekoa da jendetza handia izan dela; horrek adierazten du Osalaneke sustatutako ekitaldiek interes handia sortzen dutela.

2. TAULA:

OSALANEK 2012KO KUDEAKETA PLANAREN ESPARRUAN ANTOLATUTAKO EKITALDIAK

EKITALDIA	DATA	TOKIA	HELBURUA
Jardunaldi tekniko-medikoa, EAEn dagoen amiantoari buruz Osalaneke egindako txostena aurkezteko.	Otsailak 22	Bilbo	<ul style="list-style-type: none"> - EAEn dagoen amiantoaren arazoari buruz Osalaneke egindako txostenean jasotako ondorioak azaltzea. - Inplikaturik dauden erakundeen ikuspegiak azaltzea eta haien arteko eztabaida sustatzea.
Osalaneke antolatutako lan-gosaria: Amiantoak eragindako kalteen konpentsazioa. Osalaneke egindako azterlanaren eta azterlan hori EAEn aplikatzeko aukeren aurkezpena.	Apirilak 23	Bilbo	Amiantoak eragindako kalteak konpentsatzeko arazoak azaltzea, horren ondorioz EAEn sortu diren gaixotasunen berri ematea, eta balizko konponbideak planteatzea.
Eraikuntzako gidaliburu teknikoaren eguneratzeari buruzko jardunaldia.	Maiatzak 9	Bilbo	Eraikuntza-sektorean laneko segurtasun eta osasunaren alderdi juridiko eta teknikoak aztertzea.
Mesoteliomari eta amiantoari buruzko jardunaldia (Osalaneke eta Onkologikoak antolatua).	Uztailak 5	Donostia	Mesoteliomaren inguruan eta amiantoaren eraginpean egotearekin duen lotura aztertzearen Osalaneke egindako azterlana aurkezteko jardunaldia.
Laneko segurtasun eta osasunari buruzko II. Uda Ikastaroa, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Osalaneke lankidetzan antolatua.	Irailak 3-4	Donostia	<p>Laneko arriskuen prebentzioan gizartearen sentsibilizazioa eta kontzientziazioa areagotzen jarraitzea, gaiari buruzko ezaupideen eta esperientzien berri emanez. Zehazki:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehen sektoreko laneko arriskuen azterketa sakonagoa egitea. - Gaixotasun profesionalak, eta bereziki lanak eragindako minbizia, behin eta berriro gogoraraztea.
Osasunaren berariazko zaintzarako protokoloaren aurkezpena: irin-hautsaren eraginpean egondako langileen asma.	Irailak 21	Bilbo	Osasunaren berariazko zaintzarako protokoloaren aurkezpena: Irin-hautsaren eraginpean egondako langileen asma, ebidentzian oinarritutako medikuntzaren metodologiaren arabera berrikusia.
Tunel eta zangetan lanean jarduteko segurtasun-gida aurkezteko jardunaldi teknikoak.	Irailak 25	Bilbo	Tunel eta zangetan lanean jarduteko segurtasun-gida berriaren eta zangetan lanean jarduteko segurtasunerako argitalpen eguneratuaren aurkezpena. Dokumentu horietan tunel eta zangetan lanean jarduteko lan-metodo berriak jasota daude, kontsultak bideratzeko, arriskuak ezabatzeko edo murrizteko prozeduren prestaketarako, jardura horietan oso handiak baitira arriskuak.
Prebentzio-baliabideen eskuliburuaren aurkezteko jardunaldia.	Irailak 27	Donostia	Prebentzio-baliabideen eskuliburuaren aurkezpena. Eskuliburu hori Osalaneke eta Mutuak egin dute elkarlanean, figura horri buruz dauden askotariko arau eta irizpideak biltzeko eta argitzeko premiari erantzuteko.
Prebentzio-baliabideen eskuliburuaren aurkezteko jardunaldia.	Urriak 23	Gasteiz	
Laneko jazarpenari buruzko nazioarteko jardunaldiak, eta Osalaneke antolatutako laneko psikosozioologiaren III. jardunaldiak.	Azaroak 5-6	Bilbo	<p>Faktore psikosozialei lotutako arriskuen zein langileen osasunean eragin ditzaketen ondorio kaltegarrien prebentzioa eta ezagutza sustatzea, jazarpenaren gaia berariaz jorratuz.</p> <p>OSALANEKE egindako lanaren aurkezpena: Arrisku psikosozialen prebentzioa. Euskadiko egoeraren azterketa eta jarduteko proposamenak.</p>
Arrantza-portuetako jardura lagungarrietan eta itsaski-bilketan diharduten langileen osasunaren berariazko zaintzarako gidaliburuaren aurkezpena AZTI-TEKNALIARI.	Azaroak 8	Donostia	Gidaliburuaren aurkezpena; haren justifikazioa, helburu eta irismenaren azterketa; arriskuen identifikazioa eta medikuntza-miaketarako fitxak.



- Prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako prestakuntza.

Lan-ildo hori ez zen aintzat hartu 2012rako Kudeaketa Planaren hasierako diseinuan, baina plan horretan sartu zen Lan Medikuntzaren Euskal Elkartearekin eta Medikuntza Zientzien Akademiarekin egindako bilera baten ondoren; izan ere, bilera horretan agerian jarri zen prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako prestakuntza-esparruak ezartzeko interesa.

Oinarrizko bihotz-biriketako bizkortzeari buruzko hiru prestakuntza-ekintza egin dira, lurralde historiko bakoitzean bat, eta 2013an garatzeko ekintzen egutegia zehaztu da.

- Laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikarien prestakuntza, UPV/EHUREkin lankidetzan.

2011n ezarritako lankidetzan aurrera eginez, eta Osalanek eta UPV/EHUK sinatutako hitzarmenaren esparruan, Osalanek parte hartu du Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako laneko arriskuen prebentziorako Masterrean.

UPV/EHUREkiko lankidetzak arrakasta izan duela esan daiteke, baina Mondragon Unibertsitatearekin eta Deustuko Unibertsitatearekin jarduteko ahaleginak ez dute horrelako emaitzarik izan oraingoz. Arlo horretako harremanak bideratzeko ahaleginak egingo dira, baterako prestakuntza-ekintzen garapena helburu hartuta.

- Barruko mediku egoiliarren (BAME) prestakuntza Lan Medikuntzaren alorrean, Osakidetzarekin adostutako berariazko akordioaren bidez.

Osalanek «irakaskuntza-baliabide» gisa dihardu EAEko Lan Medikuntzako irakaskuntza-unitateko barruko mediku egoiliarren prestakuntzan. Lan Medikuntzako BAME R4en tutoretza-lanetan ari da, eta haiek Osalanen instalazioetan txandakatzen dira hiru hilabetez, prestakuntza bereganatzeko (urtean bi BAME).

- Arrisku handiko zereginak gauzatzeko prestakuntza.

2011n hasitako lan-ildoaren bidetik, arriskutsutzat jotako jarduera, eragiketa zein eginkizunak segurtasunez betetzeko prestakuntza ematea helburu hartuta, bobinak garraiatzeko gidaliburu bat egin da, eta Osalanen webgunean argitaratu da.

- Desfibriladoreen eta bihotz-biriketako bizkortzearen erabilera arduratsua sustatzea, Larrialdien Arretarako Zuzendaritzarekin eta Osasun Sailarekin lankidetzan.

Aurreko urteetan Larrialdien Arretarako Zuzendaritzarekin eta Osasun Sailarekin hasitako lankidetzan aurrera egin du Osalanek, desfibriladoreen eta bihotz-biriketako bizkortzearen erabilerrari buruzko informazioa eta prestakuntza emateko, enpresetan istripu baskularren ondorioak arintze aldera.

Baterako ekintza hauek gauzatu dira:

- Osalanen webgunean lotura bat jarri da Osakidetzaren infografien eremura sartu eta

larrialdietan zer egin jakiteko.

- Desfibriladoreak nola erabili azaltzen duen dokumentu bat egin da enpresentzat.
- Bihotz-biriketako bizkortzeari eta desfibriladoreei buruzko dibulgazio-lana egin da ORPren 2012ko Biltzarrean.
- Osalanek eta Osakidetzako Larrialdien Arretarako Zuzendaritzak osatutako lantalde bat eratu da, prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileentzako prestakuntza-plan bat diseinatzeko eta garatzeko.

- Langileentzako prestakuntza, SUESKOLA Fundazioarekin lankidetzan, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko alorrean.

Osalanek eta SUESKOLA Fundazioak suteak prebenitzeko eta itzaltzeko prestakuntza- eta dibulgazio-jarduerak egiteko iaz sinatu zuten hitzarmena luzatu egin da. Zehazki, honako ekintza hauek gauzatu dira:

- Erakunde bakoitzak egiten dituen ekitaldi, ikastaro eta abarrei buruzko informazioa hedatzeko elkarren arteko akordioa.
- Osalanen Zuzendaritzaren parte-hartzea SUESKOLA Patronatuaren bi bileretan, 2011ko kudeaketa eta 2012ko aurrekontua onesteko. Izan ere, SUESKOLA Patronatuko kide babeslea da Osalan.
- Barakaldoko zentroko esku hartzeko taldeak suteak itzaltzeko ikastaro aurreratua egin du.

Labur esanda, prestakuntza-alorrean 2012an egindakoa garrantzi handikoa da eta lortutako emaitzak oso positiboak dira. Hala eta guztiz, Osalanek itxaropen handiak zituen jarduerak esparru jakin batean, eta espero zen inpaktua ez da gauzatu.

Hain zuzen ere, Osalanek EAEko udalei egindako proposamena da, hala eskatzen duten udal-teknikariei prestakuntza emateko, baimendu behar dituzten obretan amiantoak detektatzeko gai izan daitezten. Gai horri buruz esan behar da ez dela eskaera bakar bat jaso udalen zein bestelako erakunde publikoen aldetik. Hala ere, gure proposamena aurrera ateratzeko zereginean ez dugu etsiko, baina hausnarketa egin behar dugu, proposamen hori garatzeko moduari dagokionez, 2013ko ekitaldiari begira berrikusi behar baita.



A.8. – OSASUNAREN ZAINITZA

Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategian asmo handiko helburuak xedatzen zituen jarduera-ildo honetan: langileen osasunaren berariazko zaintza, arriskuen arabera; enpresen prebentzio-jardueran osasunaren zaintza barne hartzea; osasunaren zaintza herritarren historia klinikoan adieraztea; eta osasunaren zaintza kolektiborako jarduerak barne hartzea.

Azken gai hori da, hain zuzen, 2012an jorratu gabeko gai bakarra, Osalanen Lan Osasun Unitateak ez zeukalako horretarako baliabide nahikoa; izan ere, amiantoaren eraginpean egon izanarekin lotutako gaixotasunen ugartzea dela-eta, horretara bideratu behar izan dira baliabideak neurri handi batean. Hala eta guztiz, osasunaren zaintza kolektiboari buruzko hitzaldiak eman ditu Osalaneko adituak bi biltzarretan (bata nazio-mailakoa eta bestea nazioartekoa) eta gai horretan erreferentziatzeko gara estatu-mailan. Helburua da gai horretan berariazko protokolo bat egiteko oinarriak finkatzea.

Dena dela, osasunaren zaintzaren alorreko arrakasta asko eta garrantzi handikoak lortu dira:

- Langileen osasunaren berariazko eta kalitatezko zaintza.

Epigrafe horren barruan sartzen dira Osalanen jarduera batzuk, langileen osasunaren zaintza hobetzea bideratzeko tresnak ematea helburu dutenak.

- Osasun-arrazoia direla-eta denbora luzean lanera joan ez diren langileei berriro lanean hasten direnean osasun-ebaluazioa egiteko betebeharraren jarraipena egitea.

2011n hasitako lan-ildo horretan aurrera egin dugu, baina aurrerabideen erritmoa motela da. 2012an EAEko administrazio publikoen prebentzio-zerbitzuen pilotajea egin da, eta emaitzak ez dira oraindik aztertu.

- Enpresetan droga-mendetasunen prebentziorako planen ezarpenerako gidaliburua.

Gida hori egitea helburu hartuta 2011n gizarte-eragileekin eta prebentzio-zerbitzuekin lankidetzan hasitako lanean aurrera egin du Osalanek. Horrenbestez, ORPren 2012ko Biltzarrean dokumentu bat aurkeztu zen, prebentzio-zerbitzuekin batera eraturako lantaldean prestatuko oinarritzko jarraibideak jasotzen zituena. Hala ere, dokumentu horrek ez du oraingoz bereganatu gizarte-eragileen adostasuna.

2013an lan-ildo horretan aurrera egin behar da, eta enpresa batzuen pilotajea eta gidaliburuaren argitalpena gauzatzeko aukerak aztertzen ari gara.

- Irin-hautsaren eraginpean egondako langileen asmaren osasun-zaintzarako Osalanek egindako protokoloa aurkeztu da. Protokolo horrek ebidentzian oinarritutako medikuntzaren metodologia aplikatzen du.
- ORPren 2012ko Biltzarrean aurkeztu da protokolo hori, bai eta Bilbon irailaren 16an berariaz antolatutako jardunaldi teknikoan ere.
- Halaber, arrantza-portuetako jarduera lagungarrietan (saregileak, neskatilak eta paketatzaileak) eta itsaski-bilketan diharduten langileen osasunaren zaintzarako gidaliburua aurkeztu da. Gidaliburu hori Kantauriko laneko segurtasun eta osasunerako

beste hiru erakundeekin lankidetzan egin da.

2013rako aurreikuspena da, lehen batean, protokolo berrien berrikuspenari ekitea; besteak beste, amiantoaren eraginpean egondako langileen jarduera osteko zaintzarako praktika klinikoaren gidaliburua eta egur-hautsaren eraginpean egondako langileen osasuna berariaz zaintzeko protokoloa prestatzeari ekingo zaio.

- Laneko historia medikoa, langile-denboran eta geroago ere langileak lagungarri izango duena.

Zenbait urtetarako proiektu horren garapenean aurrera egin du Osalanek, prebentzio-zerbitzuekin lankidetzan:

- Aurretiko eredu bat adostu da, eta ORPren 2012ko Biltzarrean aurkeztu da, hain zuzen, aurre-eredu hori. Halaber, pilotaje bat egiteko aukerak aztertzen ari da Osalan, eta baliteke pilotaje hori 2013an egitea.
- Herritarren historia klinikoan ezartzeko eta integratzeko aukerak aztertzen ari da Osalan, Osakidetzarekin eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin lankidetzan.

2013an ere lan-ildo horren garapena jorratu behar da.

- Lanak eragindako minbizia.

- Lanak eragindako minbiziaren zaintza epidemiologikoa; bereziki, mesoteliomaren zaintza epidemiologikoa.

Osalan ahalegindu da Erakundeak funtsezkotzat jotzen duen proiektu hau aurrera ateratzen: lanak eragindako minbiziaren zaintza epidemiologikoa eta jarraipena.

Orain arte emandako urratsak proiektua abian jarri aurretik egitekoak izan dira, eta proiektua bera 2013an gauzatu behar da. Ekimen horren ardatza da Osasun Sailaren eta Osakidetzaren konpromisoa lortzea, diagnostikatzen dituzten kasuak berehala jakinarazteko, eta horrenbestez, segituan ikertzeko aukera izatea. Horrek zaintza epidemiologikoan espezializatutako giza baliabide gehiagoz hornitzea ekarriko luke.

- Laneko segurtasun eta osasunaren ikerketarako erakunde eta zentroen sarearekiko jarduera (RICISST), silizeak minbizia eragiten duela adierazten duen ebidentziaren sintesia.

Ekintza hori 2011ko apirilean hasi zen, 2012an jarraipena izan du, eta 2013an ere aurrera egingo du. Honako urrats hauek eman dira:

- Estatu-mailako lantalde baten eraketa, Osalanek koordinatua.
- Ekipoak sortzea eta protokoloa definitzea.
- Lantaldeko kideentzako prestakuntza.
- Informazioa biltzea eta azterlanen aurretiko hautaketa.
- Oinarrizko eta MA/RS azterlanen kalitatea alderatzea eta ebaluatzea.



- Ebidentzia-taulak berrikustea.
- Ebidentziaren sintesiaren zirriborroaren idazketa.

- EAEn amiantoaren arazoari aurre egiteko jarduerak.

2011n amiantoaren arazoaren eta haren eraginpean egondako langileen gaixotasunen azterketari ekin zitzaion. Kasuak agertzen ari ziren eta gero eta gehiago izango zirela aurreikusten zen. Zenbait ekintza gauzatu ziren, baina arazoari aurre egiteko estrategia orokor baten premia nabari zen.

Zenbait jarduera egin dira amiantoaren arazoari ikuspegi desberdinetatik heltzeko, EAEko amiantoaren erabileraren historikoa oinarri hartuta, eta arazoaren bilakaerari begira. Horrenbestez, egoeraren diagnostikoa egiten ahalegindu da Osalan, eta beste herrialde batzuetan aplikatutako konponbideak aztertu dira. Kontuan hartu dira aitortutako kasuen ikerketa, lehen eraginpean egondako langileen osasunaren prebentziozko zainketa, eta beste administrazio eta erakunde batzuekiko lankidetzak, kasuak hobeto kudeatze aldera.

Honako ekimen hauek gauzatu dira:

- EAEko amiantoari buruzko txosten baten prestaketa eta zabalkundea.

Osalanek *Amiantoa EAEn* txostena idatzi zuen, Eusko Legebiltzarreko parlamentu-batzordearen aurrean aurkezteko.

Txosten hori Bilbon otsailean egindako berriazko jardunaldi batean aurkeztu zen. Txostenean adierazi zen gure autonomia-erkidegoan amiantoaren eraginpean egotearen ondorioz sortutako arazoa, ikuspegi teknikoa eta medikoa aintzat hartuta. Etorkizunari buruzko aurreikuspenen, asbestosi kasuak eta mesoteliomak agian gora egingo zutela iragartzen zen. Izan ere, amiantoaren eraginpean egoteagatik sortutako gaixotasun horien latentzia oso luzea da, eta kasuen kopuruak gorako joera hasi du EAEn.

- Amiantoak kaltetutakoentzako konpentsazio-funtsei buruzko txosten baten prestaketa eta zabalkundea.

Osalanek amiantoari buruzko bigarren txosten espezifiko bat egin zuen, amiantoaren balizko eraginpean egoteagatik sortutako gaixotasunetan aplikatu daitezkeen konponbideei buruzkoa.

Zenbait azterlan epidemiologikoen adierazten dute EAEn amiantoaren eraginpean egoteagatik eragindako patologien gorakada adierazten dute, eta garai batean eraginpean egondako langilearentzat prestazio bat erreklamatzeko auzi sistematikoek baino eraginkortasun handiagoa duen zerbait aurreikusi behar da.

Europar Batasuneko zenbait herrialdek –Frantzia, Belgika eta Holanda– askotariko irizpide eta ezaugarrien arabera konpentsazio-funtsak ezarri dituzte, auzibidea saihesteko, eta Osalanek aztertu zuen horrelako konpentsazio-funts baten aplikazio hipotetikoa eta eragingo lituzkeen kostu ekonomikoak. Emaitzak txosten batean jaso zituen eta txosten hori 2012ko udaberrian Bilbon egindako berriazko beste jardunaldi batean aurkeztu zen. Gainera, osasun-alorreko parlamentu-batzordeari helarazi zitzaion.

- Amiantoaren balizko eraginpean egoteagatik eragindako gaixotasunen ikerketa.

Osalanen jarduera horren muina da langile bati diagnostikatutako gaixotasunaren eta garai batean amiantoaren eraginpean egon izanaren artean dagoen balizko loturaren ikerketa, horretarako diseinatutako metodologia aplikatuz.

Osalanek 73 ikerketa egin ditu guztira ildo horretan 2012an: 14 Araban, 26 Bizkaian eta 33 Gipuzkoan. Ikerketa horiek bi eremu desberdinetan egin dira:

- Langileak langile-bizitzaren ondorengo zaintzan sartzeko ikerketak. Horrelako 30 ikerketa egin dira (3 Araban, 8 Bizkaian eta 19 Gipuzkoan).
- Amiantoarekin lotura duen gaixotasun baten testuinguruan egindako ikerketak. Horrelako 43 kasu daude (11 Araban, 18 Bizkaian eta 14 Gipuzkoan).

- Amiantoaren balizko eraginpean egondako langileen zerrenda, langile-bizitzaren ondorengo osasun-zaintzaren ondorioetarako.

Osalan organo eskuduna da EAEn amiantoaren balizko eraginpean egondako langileen zerrendaren kudeaketari dagokionez. Zerrendan egotearen ondorio bakarra da langile-bizitzaren ondorengo osasun-zaintza jasotzeko aukera izatea.

Esparru horretan 2012an garatutako jardueraren ondorioz, 282 pertsona sartu dira zerrenda horretan:

- Jardunean ari diren pertsonak: 92
- Langile-bizitza amaitu dutenak: 190

Langile-bizitza ondorengo zaintzarako 399 eskaera izapidetu dira, eta hauek izan dira emaitzak:

- Izapidetan: 158
- Osakidetzaren zaintzapean: 186
- Beste autonomia-erkidego batean zaintzapean: 5
- Ez dute onartu: 50

- Amiantoari buruzko estatu-mailako lantaldean parte hartzea.

Amiantoaren arazoari era bateratuan heltzarren beste administrazio eta erakunde batzuekiko lankidetzak bilatu nahian, Batzorde Nazionalako amiantoari buruzko lantaldearen bileretan parte hartu zuen Osalanek.

Lantalde horretan amiantoari lotutako osasun-zaintzarako protokoloa onetsi da, eta inplikaturik dauden gainerako organoek berretsi behar dute (osasunaren eta enpleguaren alorreko eskumenak dituzten sailak...).



A.9.- LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARAKO JARDUKETEN KALITATEA

Arlo honen helburua da enpresek eta enpresa horietako profesionalek –bai prebentzio-erakunde propioetan bai entitate espezializatueta dihardutenek– laneko arriskuen prebentzioan garatzen dituzten jardueren kalitatea bermatzea.

Osalan berriazko jarduketetan aritu da arlo horretan, baina beste arlo batzuetan gauzatutako ekintza askok ere eragina dute enpresetako laneko arriskuen prebentzioaren kalitatearen hobekuntzan. Ondorio horiek eragiten dituzte, esate baterako, enpresa txiki eta ertainei aholkularitza emateko kanpainak, prestakuntza- eta dibulgazio-ekintzek, ezagutza sortzeko ekintzek, edota langileen osasun-zaintzaren hobekuntza sustatzeko ekimenek. Prebentzio-ekintzaren kalitatean ondorio bereziak dituzte prebentzio-zerbitzuekin (besterenak, propioak eta mankomunatuak) gai espezifikoetarako sortutako lantaldeetan garatzen diren baterako lanek.

Arlo horretako ekintzen xedea da enpresetako prebentzio-antolaketek arriskuak hobeto identifikatzeko eta tratatzeko gaitasuna izatea, hartara langileak arrisku gutxiagoren eraginpean egoteko eta arrisku horiei aurre egiteko neurri hobek aplikatzeko. Hauek dira ekintzak:

- Higiene-arriskuen ebaluazio-metodo zorrotz eta estandarizatuak, arrisku-maila objektiboki ezagutzea bideratzen dutenak.

2011n hasitako lanean aurrera egin du Osalanek. Horrenbestez, agente kimikoen eraginpeko egoerak aztertzen dituzten 49 txostenen analisia egin da. 27 prebentzio-zerbitzuek egin dituzte txosten horiek, eta 42 teknikariek sinatu dituzte.

Analisien emaitza gisa, gabezia hauek identifikatu dira:

- Zehaztasun-maila urria.
- Ebaluazioen %89,6 ez dira zuzenak.
- Prebentzio-neurriak zehaztasun gutxikoak dira.

Ondorioak eta jarduteko proposamenak bilduko dituen txosten bat egiten ari da Osalan, 2013an amaitu eta hedatuko dena.

- Arrisku psikosozialak.

2011n arrisku psikosozialen alorrean hasitako lan-ildoak sendotu da, eta 2012rako ezarritako helburu nagusia bete da. Helburu hori zen, hain zuzen, EAEn arrisku horien egungo egoeraren diagnostikoa burutzea, premia nagusiak identifikatzea, eta 2013rako eta ondorengo urteetarako ekintza-plana ezartzea.

Arlo honetan ekintza hauek gauzatu dira:

- EAEko arrisku psikosozialen diagnostikoa egin zen, prebentzio-zerbitzuekin lankidetzan, eta ORPren 2012ko Biltzarrean eta Osalanek azaroan egindako III. Jardunaldi Psikosozialetan aurkeztu ziren emaitzak. Halaber, Osalanen webgunean argitaratu ziren.
- Diagnostikoaren ondorioz, ekintza zehatz batzuk proposatu ditu Osalanek, eta

proposamen horiek abian jartzeko fasean daude.

- OTP, profesionalen elkargo eta abarrekiko koordinazioa, arrisku psikosozialen alorreko lanak gauzatzeko.
- Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalaren arrisku psikosozialen lantaldean parte hartzea.
- Zenbait argitalpen prestatu dira: droga-mendekotasunei buruzko gida eta abar.
- Zenbait artikulua egin dira, laneko psikosozilogiari lotutako dokumentu tekniko bat prestatzeko.

Ekintza horietan 2013an ere aurrera egitea aurreikusten da.

- **EAEko enpresetan laneko arriskuen prebentzioaren kalitatea hobetzeko kanpaina.**

EAEko enpresak bisitatzeko kanpaina Osalanek 2012an ekindako eta gauzatutako irismen handiko jarduketa da. Kanpaina horren helburua da prebentzio-ekintzaren kalitatea aztertzea, gabeziak identifikatzea eta hobekuntzak proposatzea.

Industriaren eta zerbitzuen sektoretako 147 enpresa aukeratu dira, eta diziplina anitzeko esku-hartzea gauzatu da, Osalanen arlo teknikoak eta osasun arloak eta enpresetako prebentzio-antolaketek parte hartuta. Jarduketa bakoitzaren ondorioz, txosten bat egin da, dagokion enpresari prebentzio-kudeaketaren gabeziak jakinarazteko, arazo horiek konpon ditzan eta laneko arriskuen prebentzioan hobekuntzak egin ditzan.

Kanpainaren lehen fasea 2013ko urtarrilaren 31ra arte luzatu da, eta kanpaina apirilaren 30ean burutuko dela programatu da. Lehen fasean 3 lurraldeetako 138 enpresa bisitatu dira (hautatutakoen %94). Sektoreen arabera, industriako 39 enpresetan eta zerbitzuetako 99 enpresetan egin dira jarduketak. Halaber, besteren 40 prebentzio-zerbitzuren, 10 prebentzio-zerbitzu mankomunaturen eta 3 prebentzio-zerbitzu propioen jarduera aztertu da.

Kanpainaren emaitza globalak azken txostenean jasoko dira. Dena dela, egin da jada aurretiko txosten partzial bat, etorkizuneko ekintzak diseinatzeko erabili beharko dena, euskal enpresetan prebentzio-jardueraren eraginkortasun handiagoa lortze aldera. Azken txostena 2013an hedatuko da.

- **Arriskuak eta prebentzio-neurriak hobeto ezagutzeko tresnak.**

- Lan-istripuak ikertzeko Osalanen metodologia ezarri da, 2011n egindako aldaketak sartuta.
- Osalanek egindako prebentzio-baliabideen eskuliburuaren hedapenean aurrera egin da, Arabako eta Gipuzkoako lurraldeetan egindako jardunaldi teknikoetan aurkeztuz. Horrenbestez, EAEko eremu guztian hedatu da, 2011n Bizkaian ekin baitzitzaion eskuliburu hori hedatzeko ekitaldiei. Osalanen webgunean eskura daitekeen dokumentu horretan prebentzio-baliabidearen figura argitzen da, eta noiz eta zer baldintzetan jardun behar duen jakiteko irizpideak ezartzen dira.
- Eraikuntza-sektorerako gidaliburu teknikoak egiteko eta hedatzeko lanetan aurrera egin



du Osalanek, honako emaitza hauekin:

- Osalanek, LSHINekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan, eraikuntzarako gidaliburu teknikoa eguneratzeko lanetan parte hartu du, eta gidaliburu eguneratu hori maiatzaren 9an egindako jardunaldi teknikoan hedatu da.
 - Zanga eta tuneletan lanean jarduteko segurtasun-gidak, Osalanek eginak eta Erakundearen webgunean daudenak, irailaren 25eko jardunaldi teknikoan aurkeztu ziren.
 - Zubien eraikuntzan laneko arriskuen prebentziorako gidaliburu bat egiten ari den lantaldearen bileretan parte hartu du Osalanek. Gidaliburu horren idazketak 2013 burutu arte iraungo du.
- AENOREkin sinatutako hitzarmena garatu da, eta Osalanen webgunetik doan eta berehala eskura daitezke EAEko enpresentzat indarrean dauden UNE arau guztien testu osoak.
- Igerilekuen mantentze-lanetan laneko arriskuen prebentziorako gidaliburu tekniko bat prestatzea eta hedatzea helburu duen zereginari ekin zaio.
- Igerileku estaliak ustiatzen dituzten enpresa zein administrazioei informazioa emateko dokumentu bat prestatu da, kloraminen eraginez kutsatutako barruko aireari eta bainatzeko urari balizko soluziobide tekniko bat emateko.
 - Horrelako eragiketetan aplikatzeko araudia eta dauden arazoak aztertu dira, eta 2013an garatzeko jarduera-proposamen bat egin da.



A.10 – IKERKUNTZA

Ikerkuntza Osalanen lehentasunetako bat izan da beti, eta haren sustapenerako ahalegin handia egin du, zeregin horretan gero eta baliabide gehiago erabiliz. Baina 2013rako Kudeaketa Plana gauzatzeko testuinguru ekonomiko zailari aintzat hartuta, ikerkuntza-proiektutarako diru-laguntzak ardura handiz bideratu eta berrikusi beharko dira.

Arlo horren helburua zen –eta orain ere hala da– oso ezagunak ez diren arriskuei buruzko ikerketak eta azterlanak sustatzea (enpresa txiki eta ertainak, gizarte-egoera ahulean dauden sektore eta kolektiboen lan-baldintzak, gaixotasun profesionalak...), prebentzio-jardueren diseinua bideratzeko.

Horretarako, ekimen hauek gauzatu dira:

- Laneko segurtasun eta osasunaren alorreko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntzak.

Ikerkuntza-proiektuetarako diru-laguntzak eman dira berriz ere, zerrenda honetan ageri diren eremuekin lotura duten azteketa eta ikerlanei lehentasuna emanez:

- Bai *in itinere* bai misioko istripuetan gertatzen diren bideko lan-istripuei aurrea hartzea.
- Laneko ergonomia: lanak muskuluetan eta hezurretan eragindako arazoak, goiko gorputz-adarretan ondorioak dituztenak.
- Laneko psikosoziologia: laneko estresa eta/edo «burnout» erakundeetan.
- Genero-ikuspegia aintzat hartzen duen laneko arriskuen prebentzioa.
- Desgaitasunaren ikuspegia aintzat hartzen duen laneko arriskuen prebentzioa.
- Immigrazioaren ikuspegia aintzat hartzen duen laneko arriskuen prebentzioa.
- Laneko arriskuen prebentzioa enpresa txiki eta ertainetan, batez ere mikroenpresetan.
- Lehen sektorea; batez ere arrantza, nekazaritza, silbikultura eta basogintza.
- Osasunaren zaintza: lanbide-gaixotasunen kostua.

Aurrekontuko zuzkidura 650.000 eurokoa izan da, eta zenbateko hori guztia erabili da.

53 proiektu aurkeztu dira; horietako 21 diruz lagundu ditu Osalanek, eta 32 proiektu kanpoan geratu dira.

- EAEn errepidetako joan-etorrietan gertatzen diren istripuei buruzko azterlana, bai *in itinere* bai misioko istripuak aintzat hartuta.

2011ko datuekin eguneratu da Osalanek EAEko errepidetako joan-etorrietan gertatutako istripuei buruz egindako azterlana, misioko istripuak eta *in itinere* gertatu direnak berezita.

Azterlanaren emaitzak txosten batean jasota daude, jarduteko proposamen eta guzti. Txosten hori ORPren 2012ko Biltzarrean aurkeztu zen, eta Osalanen webgunean dago.

- Krisialdiak lan-istripuen tasan duen eraginari buruzko azterlana.

Atzera begirako azterlana egin ostean, ORPren 2012ko Biltzarrean aurkeztu ziren ondorioak, eta Osalanen webgunean ere argitaratu dira.

2013an ere ikerkuntza-arloa bultzatu behar da, diru-laguntzen bidez eta/edo Erakundeak berak garatutako proiektuen bidez, eraginkortasun handiena helburu hartuta.

- EAEko arrisku psikosozialei buruzko azterlana.

Arrisku psikosozialen ebaluazioaren egoera eta EAEko enpresek horri buruz egiten duten balioespena ebaluatzen duen azterlana da. Emaitza erdiragarria izan da: enpresa bakar batzuek soilik hartzen dituzte kontuan horrelako arriskuak, eta gehienetan enpresa handi samarrak dira.



A.11 – INFORMAZIO-SISTEMAK

Arlo hau zeharkako jarduera-ildoak da, laneko segurtasun eta osasunari buruzko informazio-sistema integratua izatea helburu duena. Horrenbestez, EAEko langileen osasunari eta lan-baldintzei buruz kalitatezko informazio eguneratu eta irisgarria bildu, prozesatu, aztertu eta igorri ahal izango da.

Helburu hori betetzearren, asmo handiko proiektu bati ekin zion Osalanek 2011n. Proiektu horren xedea da informazio-sistema fidagarria lortzea, datu-iturriak integratzen dituen eta sistemen elkarrengarritasunean oinarritzen dena. Proiektu hori azken fasean dago jada. Jomuga da Erakundearen jarduketari eta lortutako emaitzei buruz kalitatezko informazio eguneratua lortzea, eta EAEko laneko segurtasun eta osasunari buruzko datuak izatea, politiken eta ekintzen diseinua eta ebaluazioa egin ahal izateko. Hona hemen arlo horretan egindak aurrerabideen xehetasunak:

- OSALANen informazio-sistema integratuaren ezarpena.

2012an EJEk jarraipena eman dio 2011n hasitako jarduerari, Osalanen informazio-sistema integratuaren aplikagarri eta funtzionalitateak garatzea, eratzea eta ezartzea helburu hartuta, aurreko urtean onetsitako egutegiaren arabera.

Prozesu horretan zenbait etapa gainditzeko bidean, ekintza aipagarri hauek gailendu dira:

- Proiektuaren birplanifikazioa, hasieran aintzat hartu gabeko eskakizunak eta funtzionalitateak identifikatu ondoren.
- Jardueren kudeaketa eta Laneko osasunaren aplikagarrien lehen bertsioa entregatuta (ekaina).
- Azken produktua entregatuta: Laneko osasuna (uztaila) eta Jardueren kudeaketa (iraila).
- Egindako garapenen aurkezpena, EJEren eskutik (iraila).
- Osalanen aginte-koadrorako adierazleak eta EAEko laneko osasunaren egoeraren adierazleak egiteko fasean.
- Informazio-sistema integratua abian jartzeari buruzko aurkezpena Osalaneko langileentzat (abendua).
- Proben fasearen hasiera, 2013ko urtarrilean garatuko da.

Aurreikusten da garatutako fasea ekoizpenean egotea 2013ko martxorako, ondoren falta diren funtzionalitateei ekiteko.

- Lanari lotutako osasun-arazoak izaera eta garrantziari eta EAEko biztanleengan erabakigarriak diren faktoreei buruzko informazioa.

Erakundearen zenbait ekimenen helburua da «denbora errealeko» informazioa izatea, EAEko langileen osasun-egoera zaindu eta monitorizatu ahal izateko, eta arriskuko lan-baldintzak, denboran zehar gertatutako aldaketa eta joerak, eta osasuna mehatxatzen

duten arrisku berrien agerpena aztertzeko.

- 2012an lan-istripuak kudeatu eta erregistratzeko aplikazio berria ezarri da. Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren aplikazioa da, Osalanen premien arabera egokitua, EAEn aitortutako lan-istripuen hileko eta urteko estatistikak hobeto sortze eta hedatze aldera.

Aplikazio informatiko berria ekoizpenean jarri ondoren estatistiketan detektatutako disfuntzio batzuk direla-eta, irismen eta konplexutasun handi samarreko doitze batzuk egin behar izan dira. Horregatik atzeratu egin da lan-istripuen hileroko behin-behineko txostenak egiteko eta hedatzeko prozesua. Egoera hori 2013ko martxoaren hasieran zuzenduko da. Sistema berriak honako aukera hauek ematen ditu:

- Datu estatistikoaren balidazioa eta kontrola hobetzea (datu fidagarriagoak).
 - Lan-istripuen estatistika ofizialak zuzenean sortzea, aplikaziotik bertatik.
 - Datu estatistikoaren hedapena bateratzea Osalanen webgunean.
- Prebentzio-zerbitzuetako datuen multzo minimoan oinarritutako laneko osasunaren informazio-sistemaren ezarpenean aurrera egin da. Irismen handiko proiektua da, Osalanek azken urteetan landu duena, eta aurrerabide handia egin du sistemen planaren esparruan. Hala:
 - Sistema informatikoa eraikitzeke prozesua amaitu da, eta proben fasean dago, behin betiko ezarpena egin aurretik.
 - Laguntza teknikoa emateko lantalde bat eratu da, datuak aldi berean behin eguneratzeko.
 - Erabilzailearen eskuliburua eta aplikazioaren eskuliburu informatikoa eginda daude %95ean.
 - Lege-araudia garatzea falta da, sistema ezartzeko eta abian jartzeko. 2013an jorratuko da, baina zenbait urtetarako proiektu hau ibilbide luzekoa da.
 - EAEko lan-istripuei buruzko urteko txostena egin da, datu finkatuetan eta berariazko beste txosten batzuetan oinarrituta (lan-istripuak *in itinere*, errepidean...). Berrikuntza gisa, 2012an bi txosten egin dira, haietako bat gertatutako lan-istripuei buruzkoa da, eta bestea aitortutako gaixotasun profesionaleri buruzkoa. Bi txosten horiek Osalanen webgunearen bidez hedatu dira.
 - EAEko laneko osasun eta segurtasunaren ezaugarriak adierazteko erabiliko den adierazle-bateria definitzeko lanetan ari gara. Horretarako lantaldea osatu da, eta adierazleen proposamena planteatzeko lanak oso aurreratuta dituzte jada, gero laneko arriskuen prebentzioan inplikaturako eragileek eztabaidatu eta onets ditzaten.

- EAEko osasun-zerbitzuek eta prebentzio-zerbitzuek lanaren ondorioz eragindako gaixotasunak jakinarazteko sistema (gaixotasun profesionalaren susmoaren sistema).

Lan-ildo hau funtsezkotzat jotzen da Osalanen, eta 2007az geroztik garatu da. Urte hartan komunikazio-sistema erregulatu zuten Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osalanek, bakoitzak bere eskumenen eremuan.



2012an sistema hedatzeko eta sendotzeko bidean aurrera egin da, eta zenbait alorretako jarduerari ekin zaie.

- Osakidetzako arreta espezializatua ematen duten langileen prestakuntza hasi da, gaixotasun profesionalaren susmoa aintzatetsi eta jakinarazteari dagokionez.
- Euskarri informatikoa garatu da Osalanen sistemen planaren barruan.
- Mutuekin eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin harremanak izan dira, gaixotasun profesionalaren susmoa jakinarazteko zirkuituaren balizko aldaketarako. Gai horretan, proposamen ofizial bat egin da, eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari helarazi zaio.
- Txosten bat egin da, EAEn gaixotasun profesionalaren susmoaren alorrean egindako guztia biltzen duena (egindako aurrerabideak, gauzatutako jarduketak, eta etorkizunerako planifikatu direnak). Txosten hori gure webgunean jarrita dago.

Zifrei dagokienez, Osalanek jasotako gaixotasun profesionalen susmoen jakinarazpen guztiak 3. taulan ageri dira, lurraldeen arabera eta jakinarazpenaren jatorriaren arabera berezita. Zenbatu dira lehendik patologia profesional bezala aitortu gabeko kasuak direla egiaztatu ostean, baldin eta kontingentzia profesionalengatik babes jasotzeko eskubidea badute.

3. TAULA: GAIXOTASUN PROFESIONALAREN SUSMOAREN JAKINARAZPENAK, LURRALDEEN ETA JATORRIAREN ARABERA

	Nondik			
	2012. urtea		2011. urtea	
	Prebentzio-zerbitzuak	Osakidetzak, ikuskapen medikoa	Prebentzio-zerbitzuak	Osakidetzak, ikuskapen medikoa
Araba	332	23	119	67
Bizkaia	754	35	366	81
Gipuzkoa	568	17	111	40
GUZTIRA EAE*	1.654	75	596	188

Datu horiek 2011koekin alderatuta, gaixotasun profesionalen susmoen jakinarazpenek nabarmen gora egin dutela, 2011ko zenbatekoak bikoiztu baitira. Hala ere, gorakada hori prebentzio-zerbitzuetatik etorritako jakinarazpenetan soilik gertatu da, eta Osakidetzako zerbitzu medikoetatik etorri direnak erdira murriztu dira.

2013an arlo hori lantzen jarraitu beharko da.



A.12 – PERTSONEN GARAPEN PERTSONAL ETA PROFESIONALA

Jarduera-ildo hau ere zeharkakoa da, eta helburu nagusi hau duena: arlo honetako ekimenen ardura duten pertsonen interesa, profesionaltasuna eta kalitatea adieraztea jardunean ari direnean. Hori lortzeko, beharrezko baliabideak jarri behar dira, informazioa eta prestakuntza bideratu behar dira, partaidetza eta autonomia sustatu behar dira, eta garapen pertsonala sustatu behar da.

Osalanek planteamendu hori bere egin du, langileei dagokienez, eta hiru jarduera-esparrutan gauzatu du: informazioa eskura izatea eta hirugarrenei erraz helaraztea, pertsonen gaitzea, eta lanaren antolaketa. Gai horretan gauzatutako ekintzak hauek dira:

- Dokumentu-kudeaketa eta artxiboa, Osalanek erabiltzen dituen dokumentuak erraz eskuratzeko, segurtasuna eta konfidentzialtasuna errespetatuz.

2011n hasitako lanak jarraipena izan du, Erakundearen barne-prozeduren ikuskapenari eta berrantolaketari dagokionez, langile guztiek sare korporatiboaren bidez bertsio eguneratuak eskuratzeko aukera dutela bermatzeko.

Artxiboaren digitalizazioa analizatzen hasi gara, Lantegi Batuak eta DOKUSIrekin harremanetan, gauzatu beharreko ekintzak zehazteko.

DOKUDEAak egiten dituen prozedura eta zerbitzuen aurkezpena, eta Zuzeneko Marketin Unitatearen eta Dokumentu Kudeaketaren aurkezpena.

Euskarri informatikoa garatzeko prozesuan dago, Osalanen sistemen planaren barruan.

- OSALANek jasotako kontsultak kudeatzeko sistema integratua.

Jarduketak kontsulta telematikoei arreta ematearen ingurukoak izan dira. Haiengan eragin handia izan du web kudeatzaileak garatutako lanak, bai Osalanen webgunea dinamizatzeko eta hobetzeko, bai Erakundea gizarte-sareetan agertzeko, Twitter eta Facebook bidez.

Osalanek bi postontzi kudeatzen ditu: Osalanen webgunea eta EAEko Administrazioaren postontzia. Haien bidez herritarrei aholkua eta prestakuntza ematen dihardu Osalanek, eta jarduera horri garrantzi handia ematen diogu, jasotako kontsulten eta emandako erantzunen fluxuari erreparatuta.

Webgunearen bidez jasotako kontsultei eta Osalanek emandako erantzunei buruzko datuak hauek dira:

WEBGUNEA KONTSULTAK	WEBGUNEA OSALAN	SAILAREN POSTONTZIA
Jasotakoak	144	425
Erantzundakoak	144	418
Ebatziak	133	418
Ebatzi gabeak	0	0
Birbideratuak	11	7
Erantzuteko batez besteko denbora	5	Gehienak egun berean; gehienez ere 5 egunetan



www.osalan.net webgunerako trafikoaren datuak hauek dira:

Bisitak	Bisitari eskusiboak	Ikusitako orriak	Orriak / bisita	Bisiten batez besteko iraupena	Erreboteen ehunekoa	Bisita berrien ehunekoa
10.628	10.628	36.565	3,44	00:03:31	%39,64	%65,24

Osalan askoz ere ikusgarriagoa da Googlen, gizarte-sareetan agertzearen ondorioz, bilaketen emaitzetan «errebote-efektua» biderkatu egin baitu.

- OSALANeko langileen etengabeko prestakuntza eta espezializazioa.

Erakundeko langileen etengabeko prestakuntza jorratzen jarraitu dugu, zereginak ahalik eta eraginkortasun eta efizientzia handienaz betetzeko.

Hona hemen erakundeko langileek egindako ikastaroetako batzuk:

- Autobabeserako gidaliburuko alarma eta ebakuazioko taldearen eta lehen esku-hartzeko taldearen prestakuntza Zerbitzu Zentraletan eta Bizkaiko Lurralde Zentroan.
- Zamak igotzeko tresnei buruzko prestakuntza-jardunaldia.
- Basogintza-lanen arriskuei buruzko prestakuntza-jardunaldia.
- Ebidentzian oinarritutako medikuntzari buruzko ikastaroa, Erakundearen diharduten medikuak helburu dituenak.

Osalaneko teknikari bakar batzuek prebentzio-zerbitzuen auditoriei buruzko oinarritzko online ikastaroa ere egin dute.

- Laneko arriskuen prebentziorako ekitaldi, batzorde, foro, lantalde eta aberretan parte hartzea.

Osalaneko profesionalek laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako hainbat gaietarako buruzko foro, ekitaldi eta lantaldetan parte hartzen dute, bai Erakundearen berak antolatutakoetan, bai beste erakunde batzuek sustatutakoetan.

Osalanen parte-hartzea izan duten **dibulgazio-ekitaldi** aipagarrienak aipatu ditugu lehen, *Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa* arloari buruzko azalpenak ematean.

Erakundearen **lantaldeetan** egindako parte-hartzei dagokienez, honako hauek dira garrantzitsuenak:

- Laneko osasunaren ponentzia, Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluaren Osasun Publikoko Batzordearen mendekoa.
- Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionaleko arrisku psikosozialen lantalde

teknikoa.

- Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionaleko muskulu- eta hezur-arazoan lantalde teknikoa.
- Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionaleko amiantoari buruzko lantalde teknikoa.
- Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionaleko eta LSHINeko ikerketan lantaldea.
- Kantauriko autonomia-erkidegoetako laneko segurtasun eta osasunerako erakundetako nekazaritza- eta arrantza-sektoretako lantalde tekniko-medikoa.
- Lantokietako drogei buruzko lantaldea.
- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila: bizitza osasungarria agintzeari, tabakoa uzteari eta aldi baterako ezintasunari buruzko lantaldea.
- AENORen osasunaren zaintzari buruzko lantaldea.
- Ezgaitasunen foroa Bilboko Medikuntza Zientzien Akademan.
- Gizarte Segurantzako ezintasunak balioesteko taldea.
- EAEko eraikuntzako segurtasunari eta osasunari buruzko elkargoen arteko batzordea, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikusatzaitzaren eta Lan Ordezkaritzaren partaidetzarekin.
- EAEko obra publiko handien Batzordea, Industria eta Enplegu sailen, ADIFen eta Foru Aldundiaren partaidetzarekin.
- EAEko REACH lantaldea, hainbat partaide dituen: Osasun Publikoa, Industria, Ingurumena, Kontsumoa, Aduanak, etab.
- Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionaleko amiantoari buruzko lantalde teknikoa. Estatuko Administrazioaren zenbait sailek, enpresaburuen elkarteek, sindikatu-erakundeek, autonomia-erkidegoek eta LSHINek osatua.
- Amiantoari buruzko talde tekniko mistoa, autonomia-erkidegoetako, Laneko Ikusatzaitzako eta LSHINeko ordezkarien partaidetzarekin.
- LSHINeko laneko arriskuaren mugen talde teknikoa, autonomia-erkidego batzuetako teknikariek eta LSHINeko teknikariek osatua.
- Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionaleko laneko arriskuaren mugen talde teknikoa, Estatuko Administrazioaren zenbait sailetako ordezkariek, bai eta enpresaburuen elkarteetako, sindikatu-erakundeetako, autonomia-erkidegoetako eta LSHINeko ordezkariek osatua.
- AENOR AEN-CTN-171-SC3-GT7 talde teknikoa, amiantoari buruzkoa, amiantoa kentzen diharduten enpresen elkarteek, autonomia-erkidego batzuetako teknikariek, Echevarne doktorearen laborategiak eta AENORek osatua.
- AENCTN81SC3 GT-A2 lantaldea, arriskuen ebaluaziorako. Makineria-fabrikatzaileen elkarteek, ingeniarietzek, AENORek eta LSHINek osatua.
- AENCTN81SC3 GT-B12 lantaldea, aginte-sistema seguruei buruzkoa, makineria



fabrikatzen duten enpresek, LSHINek eta AENOREk osatua.

- AENCTN81-SC2-GT 6, segurtasun-sareei buruzkoa, eraikuntza-enpresek, sare-fabrikatzaileek, autonomia-erkidego batzuek, Alacanteko Unibertsitateak, LSHINek eta AENOREk osatua.
- AENCTN81SC4 lantaldea, agente kimikoei buruzkoa, laborategietako teknikariek, LSHINek, AENOREk eta autonomia-erkidego batzuetako teknikariek osatua.
- AZTERLAN lantaldea, galdatzaileen elkarteek, Mutualia prebentzio-sozietateak, Azterlanek eta Osalanek osatua.
- Istripu hilgarrien oinarritzko lantaldea, autonomia-erkidegoek eta LSHINek osatua.
- Lan-istripuen datu ikertuei buruzko oinarritzko lantaldea, autonomia-erkidegoetako teknikariek eta LSHINek osatua.
- Makinetako lan arriskutsuen egoerei buruzko oinarritzko lantaldea, autonomia-erkidegoetako teknikariek eta LSHINek osatua.
- Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionaleko prestakuntzari buruzko lantaldea, Administrazioako zenbait sailtako ordezkariak, enpresaburuen elkarteek, sindikatu-erakundeek eta autonomia-erkidegoek osatua.
- CEBEK foroa, barruko airearen kalitateari buruzkoa, industria-teknikariek, Bilboko Udalak, Osasun Publikoak, enpresa instalatzaileek eta CEBEKek osatua.
- CEBEK foroa, Legionellari buruzkoa, industria-teknikariek, Bilboko Udalak, Osasun Publikoak, mantentze-lanetako enpresek eta CEBEKek osatua.

- Osalanen 2012rako Kudeaketa Planaren garapenerako lan-antolaketa.

Diseinuan aurreikusi bezala, Osalanen 2012rako Kudeaketa Plana gauzatzeko, aurreko urtean ezarritako antolaketari eutsi zaio, ekintzak kudeaketan laguntzeko ekipoei esleituta, eta diseinuaren eta garapenaren ardura hartuta.

2011n eraturako kudeaketan laguntzeko ekipoak mantendu dira funtsean, izenetan eta langile-horniduran aldaketa txiki batzuk eginda, eta emaitza orokorra askieskigarria dela iritzi zaio.



A.13.- OSALANEN ERAKUNDE-JARDUERA

Lan-arlo honetan biltzen dira Osalanek garatzen dituen jarduerak, Erakundea sortzeko legean eta egitura eta funtzionamendua ezartzen duen erregelamenduan esleitutako funtzioak betetzeko. Gauzatutako ekintzak eta garatutako jardueren bolumena ondorengo ataletan jasota dago, xehetasunetan sartu gabe.

- Lan Agintaritzaren, Laneko Ikuskatzailetzaren, erakundeen, enpresen, prebentzio-erakundeen eta langileen kontsultei, salaketei eta errekerimenduei arreta ematea.

	SALAKETAK		ERREKERIMENDUAK	
	Jasotakoak	Erantzuna emanda	Jasotakoak	Erantzuna emanda
LEHEN SEKTOREA	1	-	2	2
INDUSTRIA	96	70	118	98
ERAIKUNTZA	108	84	237	249
ZERBITZUAK	37	20	74	64
GUZTIRA	242	174	431	413

- Lan-itripu larri, oso larri, hilgarri eta anizkunak ikertzea, eta dagozkien txostenak egitea, Lan Agintaritzara eta Agintaritza Judizialera helarazteko, eta interesdunei bidaltzeko.

EAEn gertatutako istripuetatik (ikus eranskina), honako hauek ikertu dira:

IKERTUTAKO ISTRIPUAK					
	Industria	Eraikuntza	Lehen sektorea	Zerbitzuak	GUZTIRA
Hilgarriak	19	8	5	8	40
Larriak / Oso larriak	101	56	10	40	207
Arinak	141	22	8	152	323
Anizkoitzak	-	-	-	-	-

- Irekitzea jakinarazten duten industriako, zerbitzuetako eta lehen sektoreko enpresen lantokietan laneko arriskuen prebentzioa ikuskatzea.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
LEHEN SEKTOREA	1	12	1	14
INDUSTRIA	20	155	17	192
ZERBITZUAK	51	93	3	147
GUZTIRA	72	260	21	353

- Lanarekin zerikusia duten gaixotasunak ikertzea eta dagozkien txostenak egitea.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Salaketak eta errekerimenduak	3	55	27	85
Egindako txostenak	3	49	22	74

- OSALANen Higiene Laborategiko jarduera.

Egindako txostenak:	244
- Ingurumenari dagozkionak	238
- Biologikoak	6
Erabakien kopurua:	2.515
- Ingurumenari dagozkionak	2.488
- Biologikoak	27

- EAEen identifikatutako legionella kasuen balizko laneko jatorriaren ikerketa, Osasun Sailak eskatuta.

Ikertutako kasuen kopurua	8
Egindako txostenak:	8
- Aldekoak	1
- Ezezkoak	7
Eragindako langileen kopurua	8



- Prebentzio-zerbitzuen baimen sanitarioa eta kontrola.

Txostenak eta errekerimenduak	246 txosten
Ikuskapena eta kontrola	343 jarduketa
Ebazpenak	153
Zigor-espedienteak	6 irekiak

- Argitalpenak prestatzea eta argitaratzea.

OSALANEK ARGITARATUTAKO ZEIN PARTE HARTUTAKO ARGITALPENAK 2012RAKO KUDEAKETA PLANAREN ESPARRUAN

ARGITALPENA	Argitaratzailea	Data
Laneko arriskuen muga agente kimikoentzat 2012	LSHIN	2012ko otsaila
Laneko segurtasun eta osasunari buruzko legedia. Xedapen orokorrak	OSALAN	2012ko martxo
Laneko segurtasun eta osasunari buruzko legedia. Xedapen espezifikoak	OSALAN	2012ko martxo
Eraikuntzako segurtasunerako gidaliburua (eguneratzea)	LSHIN	2012ko apirila
Tuneletako lanen segurtasunerako gidaliburua	OSALAN	2012ko iraila
Zangetako lanen segurtasunerako gidaliburua	OSALAN	2012ko iraila
Bobinak errepidez garraiatzeko gomendioak	OSALAN	2012ko iraila
Laneko asma. Berariazko zaintzarako protokoloa: irin-hautsaren eraginpean dauden langileak	OSALAN	2012ko iraila
Lan-istripuen biktimei arreta emateko gidaliburua	OSALAN / Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	2012ko abendua
Arrantza-sektorean (portuko jarduera lagungarrietan eta itsaski-bilketan) osasuna zaintzeko gidaliburua.	OSALAN	2012ko iraila



3. 2012KO KUDEAKETA PLANAREN GARAPENARI BURUZKO BALIOESPENA

Aurreko kapituluetan Osalanen 2012rako Kudeaketa Planaren ekintzen egoeraren berri eman ondoren, zehatz-mehatz, gauzatze-maila eta emaitza nagusiak adierazita, baterako ebaluazio bat egin behar da, Planaren garapenari eta urterako xedatutako helburuak lortzeko bidean izan duen eraginari begira.

Arrakastak adieraztea garrantzitsua da eta adorea ematen du, baina lortu ez diren helburuak eta planifikatutakoa erreferentziatzat hartuta gertatu diren desbideratzeak ere identifikatu behar dira, horren arrazoiak adierazteko, eta etorkizuneko jarduerak diseinatzeko garaian ikasbideak aplikatzeko.

Kudeaketa Planaren garapenaren balantze orokorra ona da, baina landutako arloen artean desberdintasunak ageri dira. Kontzientziazioaren eta sentsibilizazioaren alorrean egindakoaren balioespena oso positiboa da: ekintza eta hedapen- eta dibulgazio-ekitaldi zientifiko ugari gauzatu dira, eta haien artean aipatzekoak dira ORPren 2012ko Biltzarra, Uda Unibertsitateko II. Uda Ikastaroa, antolatutako jardunaldi teknikoak eta ikasgela mugikorra. Aparteko aipamena merezi du Interneten Osalanen eta laneko segurtasun eta osasuneko gaien presentzia sendotzeko egindako ahaleginak. Arlo horretan aurrerabide ikusgarriak egin dira.

Lehen sektorean, arrisku psikosozialetan eta gaixotasun profesionalen alorrean egindako esku-hartzeak ere interes handikoak dira prebentzioaren aldetik. Halaber, aipagarriak dira, lehenengo bi kasuetan, 2011n hasitako lan-ildoak direlako, eta horrenbestez, berri samarrak; eta hirugarrenak aipamena merezi du lortutako emaitzengatik, agerian jartzen bitu Osalanen jardueraren eragina lanarekin lotutako gaixotasunak azaleratzeko eta tratatzeko prezesuan.

Ahalegin eta baliabide asko baliatu dituen arloa amiantoari lotutako arazoa izan da. Osalan erantzun azkarra ematen ahalegindu da, zenbait aldetatik, arazoaren alderdi desberdinei aurre egiteko estrategia global bat oinarri hartuta: egoeraren diagnostikoa, gaixotasunen ikerketa, agian eraginpean egon direnen osasuna zaintzea, konpentsatzeko alternatibak, prestakuntza, eta amiantoa kentzeko lanen kontrola.

Osalanek beste organo, administrazio eta erakunde batzuekin dituen harremanei dagokienez, Osasun eta Kontsumo Sailarekiko eta Osakidetzarekiko lankidetzat sendotu da, osasun-alorreko ekimenen baterako garapena bideratu da, eta harreman sarri eta emankorrak sortu dira laneko arriskuen prebentziorako eragileekin, batez ere erakunde espezializatuekin.

Amaitzeko, ezin dugu ahaztu irismen handiko Osalanen proiektua: informazio-sistema integratuaren ezarpena, hain zuzen. Sistema horrek, epe ertainean eragin handia izango du erakundearen jardueran, bai eta EAEko laneko arriskuen prebentziora ere.

Orokorrean, esan daiteke Kudeaketa Planeko arlo guztian lan handia egin dela, lan hori aurreikuspenen arabera garatu dela, eta neurri handi batean helburuak lortu direla.

Ekintza gehienek ondorio positiboak eragin dituzte helburu zituzten arloetan.

Alderdi negatiboei erreparatuta, aipagarriak dira jarduketa batzuetan gertatu diren atzeratzeak, planifikatutako denborekin alderatuta. Horren ondorioz, aurrerabide gutxi egin dira zenbait arlotan. Horregatik, ekintza batzuk bertan behera utzi behar izan dira, edo birdefinitu dira, egoera batzuk ez baitziren oso egokiak ekintza horiek gauzatzeko. Nolanahi ere, ekimen bakar batzuetan soilik pairatu dira horrelako egoerak.

Azaldu duguna logikoa da, eta espero daitekeena, nolabait. Izan ere, onartu behar dugu Kudeaketa Planak malguak eta egokitzeko modukoak izan behar dutela beti. Hortaz, «disfuntzio» horien analisiaren haritik atera dezakegun ondorioa da gehienetan hirugarrenekin koordinatzeko premiagatik sortu direla. Hirugarren horiek gabe Osalanen jarduera ezinezkoa da, eta hain lehentasunak eta gureak batzuetan ez datoz bat. Osalanen jarduera, erakunde-jarduketaren arloan, nekez kuantifika daiteke, baliabideen aurreikuspena egiteari begira, kanpoko eskaerari erantzuten baitzaio. Izan ere, agintaritzen, gizarte-eragileen, eta azken finean, gizartearen eskaerei erantzuten die Osalanek. Azken urtean, esate baterako, amiantoaren eraginpean egoteari lotutako jarduera oso bizia izan da, batez ere lehenengo sei hilekoan, eta errekurtsioak eta hain premiazkoak ez diren beste jarduketa batzuk eragin ditu.

Amaitzeko, bizi dugun egoera ekonomiko delikatuak eragin saihestezina izan du ekimen batzuetan, eta haien irismena murriztu, funtsezko aldaketak egin, edota bertan behera utzi behar izan dira.

Etorkizunari begira, 2011n sortu genituen bi kontsigna ekarriko ditugu gogora. Bat: errealitatean oinarrituta diseinatu behar ditugu ekintzak, eta arreta handiz dimentsionatu behar ditugu, hartara, ekintza horiek gauzatzeko baliabide nahikoak bideratuko ditugu. Bi: lanen garapen eta emaitzen etengabeko jarraipena egin behar dugu, desbideratzeak garaiz zuzentzeko, eta detektatutako disfuntzioak doitzeko.



ERANSKINA: EAE-KO ISTRIPUEI BURUZKO DATUAK

LAN-ISTRIPUAK		BALIO ABSOLUTUAK		URTETIK URTERAKO ALDAKETA	
		2012	2011	Absolutua	%tan
ERREFERENTZIAZKO ALDIAN BAJA ERAGIN DUTEN LAN-ISTRIPUAK		30.436	34.844	-4.408	-12,7
Istripu berriak		28.928	32.984	-4.056	-12,3
Berriz gaixotzeak		1.508	1.860	-352	-18,9
BAJA ERAGIN DUTEN LAN-ISTRIPU BERRIAK					
Lanaldian					
	Arinak	25.412	29.480	-4.068	-13,8
	Larriak	160	183	-23	-12,6
	Hilgarriak	32	34	-2	-5,9
	Istripuak guztira	25.604	29.697	-4.093	-13,8
In Itínere					
	Arinak	3.289	3.259	30	0,9
	Larriak	27	18	9	50,0
	Hilgarriak	8	10	-2	300,0
	Istripuak guztira	3.324	3.287	37	1,1
LANALDIAN GERTATU DIREN ETA BAJA ERAGIN DUTEN LAN-ISTRIPU BERRIAK					
Lurraldeka					
	Araba	4.705	5.706	-1.001	-17,5
	Bizkaia	12.968	15.053	-2.085	-13,9
	Gipuzkoa	7.931	8.938	-1.007	-11,3
	EAE	25.604	29.697	-4.093	-13,8
Istripu hilgarriak					
	Araba	6	5	1	20,0
	Bizkaia	14	16	-2	-12,5
	Gipuzkoa	12	13	-1	-7,7
	EAE	32	34	-2	-5,9
ERAGIN-TASA, SEKTOREAREN ARABERA					
Istripuak guztira		35,9705	40,2653	-4,29	-10,7
	Lehen sektorea	61,2534	60,6981	0,56	0,9
	Industria	58,018	66,0541	-8,04	-12,2
	Eraikuntza	76,534	86,996	-10,46	-12,0
	Zerbitzuak	25,048	26,895	-1,85	-6,9
BAJARIK ERAGIN EZ DUTEN LAN-ISTRIPUAK		46.884	47.013	-129	-0,3

GAIXOTASUN PROFESIONALAK	BALIO ABSOLUTUAK		URTETIK URTERAKO ALDAKETA	
	2012	2011	Absolutua	%tan
Baja eragin dutenak	860	967	-107	-11,1
Bajarik eragin ez dutenak	1.854	1.993	-139	-7,0
Guztira	2.714	2.960	-246	-8,3

OSALAN
2013ko apirila

